

A watercolor illustration of a bird in flight, rendered in shades of blue, orange, and purple. The bird is positioned in the upper left quadrant, with its wings spread wide. The background is a mix of soft, blended colors, creating a dreamy and artistic atmosphere. The text is overlaid on the upper part of the image.

Julene Azpeitia

Lehiaketa 2008

# Julene Azpeitia lehiaketa



2008. urtea

Argitaratzailea: \_\_\_\_\_



**DURANGO**  
Udala • Ayuntamiento

Laguntzailea: \_\_\_\_\_



**Bizkaiko Foru  
Aldundia**  
Kultura Saila

Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren  
Kultura Sailaren laguntza jaso du

*Izenburua:* Julene Azpeitia Lehiaketa. 2008. urtea

*Azala eta barruko marrazkiak:* Imanol Larrinaga

*Argitaratzailea:* Durangoko Udala

*Maketazio eta fotomekanika:* Gertu. Oñati

*Inprimategia:* Gertu. Oñati

*Lege Gordailua:* SS-1648-2008

2008ko azaroa

|   |    |
|---|----|
| HITZ AURREA .....   | 7  |
| <i>Mari Jose Balier Orobio-Urrutia</i><br><i>Euskara eta Kultura Batzordeko presidentea</i> |    |
| IPUINAK   |    |
| EZTI URDINA .....   | 11 |
| <i>Imanol Irizar Agirre</i>   |    |
| EGUNEROKOA.....   | 17 |
| <i>Ainhoa Olaso Sopelana</i>  |    |
| ESKU PILOTA BATEN ISTORIOA .....  | 25 |
| <i>Maialen Imaz</i>   |    |
| MAIATZAREN 6A.....  | 31 |
| <i>Sara Murua</i>   |    |
| MUNDUAREN AURPEGI ZITALA .....  | 39 |
| <i>Eneko Sagardoy Mujika</i>  |    |
| KUPIDOREN GEZIA .....   | 49 |
| <i>Itziar Lauzirika Salegi</i>  |    |
| KAIXO, AGUR.....  | 59 |
| <i>Paule Odriozola Ogiza</i>  |    |
| LIZTORRAREN GALBIDEA.....   | 67 |
| <i>Jon Joseba Aizpurua Antia</i>  |    |

## OLERKIAK

ITSASOA..... 83

*June Zenarruzabeitia Velez*

ISILTASUNA ..... 87

*Ane Rios Silva*

ETA GERO ZER?..... 93

*Jon Ander Erkiaga Egidazu*

## BERTSOAK

EUSKARA ..... 99

*Irantzu Izagirre Bravo*

FUTBOLA ..... 103

*Rodrigo Oñate Feliz*

ALDAKETAK..... 107

*Garazi Sarrionandia del Hierro*

BAINA EZ KONTATU INORI ..... 111

*Eñaut Uruburu Martinez*

Heldu da udagoiena. Gurekin dira euria eta ekaitza, eta laster etorriko zaizkigu elurra eta hotza ere bai.

Udagoienean gauza guztiek hartzen dute atsedena: basoa lotan sartzen da eta ingurune guztia harrigarri aldatzen da. Hostoek kolorea aldatzen dute behera jausi eta orbel bihurtu orduko. Aldaketok guztiongan dute eragina: animaliak, landareak eta gizon-emakumeak prestatu egiten gara hotzari aurre egiteko.

Heldu da udagoiena, eta eskutik dakar “Julene Azpeitia” argitalpena.

Aurtengo honetan nobedade bat dakar: olerkiak. Eta honekin hirutasun literarioa osatzen da: Julene Azpeitia Ipuin, Olerki eta Bertso Lehiaketa.

Partehartzea ere handia izan da. Guztira 360 idazlan aurkeztu dira, kalitate handikoak guztiak ere.

Julene Azpeitia lehiaketa liburu honetan zortzi ipuin, hiru olerki eta lau bertso aurkituko dituzue Imanol Larrinaga durangarraren marrazki paregabeek atonduak. Ziur nahiz ni bezainbeste gozatuko duzuela idazlanok irakurtzen eta marrazkiak ikuskatzen.

Durangon, 2008ko azaroan

*Mari Jose Balier Orobio-Urrutia  
Euskera eta kultura batzordeko presidentea*



juleneazpeitia

lehiakeita

2 0 0 8







*Imanol Irizar Agirre*

Irabazlea 11-12 urteko sailean  
San Jose – Jesuitak ikastetxea



julene azpeitia lehiaketa 2008 urtea



Ezti Urdiña

Erdi Aroan, erreinu handi eta aberats bateko gaztelu handi eta politenean, Arturo Erregearen emazteak seme bikiak ekarri zituen mundura. Jaio berriei Daimian eta Nibaldo deitu zieten. Orduan kezka bat sortu zitzaion aitari bere bi semeak ikusirik: “Bietatik nor izango ote da nire oinordekoa, nor izango da erregerik bidezkoena? Nola esan bietako bati errege izango dela eta besteari ez”.

Orduan burua biratu eta bi semeak sehaska berean egurrezko zaldi batekin jostatzen ikustean, hau pentsatu zuen: “Anaiak dira, biek batera gobernatuko dute erreinua”. Anaiek, hamabi urte zituztela, beti zebiltzan borrokan errege izan nahi zutelako. Nibaldo zen maltzurrena: beti hasten zen bera. Anaia zirikatzeaz gain aitari gezurrak esaten zizkion anaiari buruz. Bat-batean aita gaixotu egin zen.

- Erreinuko mediku guztiak joan ziren bera ikustera baina ez zuten gaixotasun hura ezagutzen eta mediku batek esan zuen:

- Erreinu honetan gaitz guztiak sendatzen duen medizina bat dago. Ezti urdina izeneko. Horrela jarri zioten izena ikusi zutenek eta esaten dute bihotz oneko pertsonak bakarrik har dezaketela ezti mota hori. Hori entzutean aitak esan zuen:

- Eztia ekartzen didana, ni hildakoan, errege izendatuko dut.
- Nik ekarriko dizut eztia -esan zuen Nibaldok- eta errege izango naiz.
- Ahaleginduko naiz eztia ekartzen -esan zuen Damianek.

Hori esanda bi anaiak eztiaren bila irten ziren. Bide gurutze batean baikoitzak bere bidea hartu aurretik Nibaldok esan zuen:

- Urtebete barru bidegurutze honetan elkartuko gara.

Bakoitzak bere bidea jarraitu zuen. Bi bideek leku berberera eramaten zuten, baina Nibaldorena askoz luzeagoa zen. Damian basamortu batera ailegatu zen.

Bertan gizon batek ura eskatu zion eta Damianek ur gutxi izan arren, eman egin zion. Gizonak horren truke mapa bat eman zion. Egun batzuk pasatuta Nibaldo agertu zen basamortuan, eta gizonak ura eskatu zionean pikutara bidali zuen eta horregatik ez zuen mapa lortu. Mapak Damian kostaldera eraman zuen. Bertan emakume bat itotzen ari zen eta Damiani laguntza eskatu zion. Damianek ez zekien igerian, baina hain larri ikustean emakumea, ezustean, uretara bota igerian hasi eta bizia salbatu zion eta emakumea erle-erregina izugarri bat bihurtu zen.

Botila bat atera zuen eta bertara likido likatsu eta urdin bat bota zuen esanez:

- Hau ezti urdina da, gaitz guztiak sendatzen dituena. Zure bihotz onekoari esker lorturikoa.

Eta hori esanda desagertu egin zen. Damian ordea bidegurutzera itzuli zen. Bertan anaia ailegatzean esan zion:

- Eztia aurkitu dut !


- Zu ez zara errege izango esan zuen Nibaldok.

Eta hitz hauekin labana atera eta anaia hil zuen eta bertan lurperatu zuen. Anaiari kendutako botilatik, nahi gabe, ezti apur bat erori zitzaion lurrera. Gaztelura itzultzean Nibaldok eztia eman zion aitari eta honek esan zion bera hiltzen zenean izango zela errege.

Ondoren Damianen bila joan zen eta bidegurutzean zuhaitz bat ikusi zuen. Bertan kolore gorri eta urdineko erleak zeuden lanean ezti urdin batekin. Pixka bat hartu behar zuenean zuhaitzak esan zuen:

- Damian naiz, Nibaldok hil ninduen eztiaren jabe nintzelako eta hemen lurperatu ninduen. Zorionez ezti ttantta bat erori eta bizia salbatu zidan. Erregeak hori entzutean semea atera eta Nibaldo kartzelaratu zuen Damian errege bihurtuz.









*Ainhoa Olaso Sopelana*

Akzesita 11-12 urteko sailean  
Kurutziaga Ikastola





julene azpeitia lehiaketa 2008 urtea



Egunerokoa

07-10-29a, astelehen arratsaldea:

*Kaixo eguneroko maitea, gaur gauza harrigarri bat gertatu zaigu aitaxori eta niri. Auto istripu bat izan dugu, Iurretako kanposantura joan gara ama bisitatze-  
ra eta Durangorantz abiatu garenean autoak irrist egin du eta farola baten kontra  
jo dugu. Orain biok Bilboko ospitalean gaude. Nik bizkarrean golpe bat besterik  
ez daukat, baina aitak konortea galdu du eta orain gela berezi batean dagoela uste  
dut...*

- Barkatu neskato, baina zu Malen Aranburu zara? Xabier da zure aita?  
-ate batetik irten zen andre gazte batek galdetu zuen.

- Bai nire aita da ... nola dago?

- Lo dago oraindik. Altxa lurretik Malen eta etorri nirekin. Galdera ba-  
tzuk egin behar dizkizut.

- Itxaron pixka bat, gauzak batu behar ditut eta.

Neskatoak bere pelutxezko hartzatxoa eta bere egunerokoa hartuta os-  
pitaleko andreaki eskutik heldu zion. Gela batera sartu ziren, Malenek eza-  
gutzen zituen marrazki bizidunen poster mordoa zeuden horman itsatsi-  
ta, panpinez betetako kaxa handi bat, koloretako hiru ohe, margoz bete-  
tako mahai bat... Bi aulki hartu eta mahai horretan jarri ziren biak. Os-  
pitaleko neskak arkatza bere poltsikotik atera eta mahai ondoan zegoen apal  
batzuetatik orri zuri bat hartu zuen.

- Ongi da. Lehenik eta behin, nire izena Itsaso da.

- Itsaso, galdera bat... gero jolastu ahal izango dut panpinekin?
  - Bai noski. Baina lehenengo galderak, ongi da?
  - Bai.
  - Zenbat urte dituzu?
  - Zazpi urte ditut, eta abuztuaren 10ean zortzi beteko ditut.
  - Non dago zure ama?
  - Nire ama orain dela hiru urte hil zen.
  - Sentitzen dut ... eta beste familiarren bat baduzu?
  - Ez dakit. Nire aitak ez dit familiarik aurkeztu.
  - Ongi da... -paperean dena apuntatzen zuen bitartean.
  - Non ikasten duzu?
  - Herriko Ikastolan.
  - Eta badaukate honen berri?
  - Ez, nik dakidala ez behintzat.
  - Gero deitu egin beharko dugu orduan.
  - Itsaso, barkatu, baina... etorri pixka batean hona mesedez.-atetik gizon bat sartu zen.
  - Itxaron Malen. Gero jarraituko dugu ... Zer gertatzen da Gaizka?
  - Xabier Aranburu itzartu egin da eta amnesia dauka.
  - Nire aita? Nola dago? Itsaso, aita ikustera joan naiteke?
  - Bai, baina Gaizkarekin joan. Bitartean nik zure ikastolara deituko dut.
  - Utzi al ditzaket nire gauzak hemen?
  - Bai noski. Joan lasai.
- Malen oso urduri zegoen. Gaizkarekin joan zen. Gela zuri zuria zen, eta gelaren erdian aita zegoen ohe batean etzanda.
- Kaixo aitatxo. Pozten naiz zu ikustez!

- Nor zara ? Alde hemendik!

- Aitatxo? Gaizka, zer gertatzen zaio nire aitari?

- Zure aitak oroimena galdu du. Amnesia dauka zoritzarrez.

- Aitatxo... Malen negarrez hasi zen.

- Lasai Malen. Egunero etorriko zara berarekin ordu erdi egotera. Horrela hobeto jarriko da, ziur nago.

Malenek, negarrari eutsi ezinik, bere aitari besarkada bat eman eta gela zuri hartatik alde egin zuen. Itsasorekin egondako gelara itzuli zen eta ohe haietan etzan zen bere pelutxezko hartatzkoa hartuta. Gelan Itsaso zegoen telefonotik hizketan. Telefonoa eskegi zuenean, Malenen ondoan etzan zen.

- Karmele, zure andereñorekin hitz egin dut eta oso urduri jarri da gertatutakoa azaltzerakoan.

- Ba... aitak ez nau ezagutzen.- esan zuen begietatik malkoak irteten zaizkion bitartean.

- Lasai, nik zainduko zaitut hemen zauden bitartean.

Besarkatu egin ziren biak eta Malenek eskerrak eman zizkion Itsasori.

Hurrengo egunean, gosaldue ostean, Malen aita bisitatzera joan zen. Bere egunerokoa hartuta, gela zuri hartara joan zen Gaizkaren laguntzarekin. Malenek egunerokoa irakurri zion aitari.

“Aitak amnesia *dauka eta* gela zuri batean dago ohe batean etzanda...”

Horrela egunero. Aita bisitatu ondoren jolastu egiten zuen Itsaso eta Gaizkarekin. Egun batean, aita bisitatu eta gero, Itsasorekin jolasten hari zela, gizon gazte bat sartu zen gelara Malenen aita oso larri zegoela esanez.

- Itsaso, azkar! Xabier Aranburu oso gaizki dago eta zure laguntza behar dugu!

- Malen, lasai. Ez arduratu. Geratu hemen pixka-batean formal-formal, ongi?



- Bai, ez arduratu nitaz. Joan nire aitarengana!

Itsasok muxu bat eman zion masailean Maleni eta joan egin zen. Ohean etzan zen negarrez. Ez zuen aita galdu nahi. Nahikoa zuen ama galztearekin. Bi ordu egon zen Itsaso aitarekin eta Gaizka joan behar izan zuen Malen zaintzera eta berarekin jolastera. Malenek marrazki bat egin zuen. Marrazki horretan aita eta bera agertzen ziren. Egunerokoan gorde zuen marrazkia, hurrengo egunean aitari emateko asmoarekin.

- Oso harro egongo dira gurasoak zurekin.

Eskerrik asko, esan zion Malenek malkoak atzamarrekin kentzen zituen bitartean.

- Zure alta nola dagoen ikustera noa. Geratu hemen. Segituan nator, ados?

- Bai, ados!

Malenek, bitartean, egunerokoa idazten jarraitu zuen.

*07-11-13, astearte goiza:*

*Kaixo eguneroko maitea. Oraindik ospitalean nago eta nire aita momentu honetan oso larri dago. Orain bakarrik nago gelan. Itsaso eta Gaizka aitarekin..,*

- Malen, etorri! Zure aitak zutaz galdetzen du! Esan zuen Gaizkak larri eta estu.

- Etorri!

- Banoa! -Malenek egunerokoa hartuz.

Malenen aita gela zuri hartan zegoen medikuz inguratuta. Malenek besarkada bat eman zion Itsasori. Aita ikusterakoan egunerokoa irakurtzen hasi zen. Aitak arretaz entzuten zion alabari.

*"...momentu honetan oso larri dago. Ni..."* Malen negarrez hasi zen baina irakurtzen jarraitu zuen.

- Kaixo Malen... -esan zion aitak.

- Kaixo aita, zer moduz zaude? Galdetu zion Malenek.

- Oso ondo zu primeran zaudela ikusita.

*julene azpeitia lehiaketa 2008 urtea*

Medikuak txaloka hasi ziren eta Malenek eta aitak elkar besarkatu zuten.

*07-11-19a, astelehen gaua:*

*Kaixo eguneroko maitea. Aita eta biok etxera heldu gara. Ospitalean bazkari bat egin dugu denak agurtzeko. Beti izango ditut gogoan Itsaso, Gaiizka , gela zuri hura..*


- Malen, zatoz egongelara. Muxu erraldoi bat eman behar dizut eta!





*Maialen Imaz*

Irabazlea 13-14 urteko sailean  
Kurutziaga Ikastola







## Esku pilota baten istorioa

Esku pilota bat naiz, Berriztarra, eta azken egunotan triste samar nabil. Horrexegatik natorkizue nire istorioa kontatzera.

Zahar samarra izan arren nahiko ondo nabil, nahiz eta gaztetako bizitasunik ez izan. Dena den, ondo mugitzen naiz pilotalekuko atzeko aldean gaztetxoak nirekin jolasten dutenean.

Jaio eta handik gutxira konturatu nintzen ez nuela partida handietarako balio, ez nintzelako pilota gogorra eta bizia, goxogoxoa baizik.

Beste modu batera begiratuta, beste mota batzuetako pilota askok baino bizitza lasaiagoa eta luzeagoa daramat. Era berean, bizitzeaz gain, tratu goxo eta onak jaso izan ditut.

Nirekin jolasten dutenak ez dira pilotari profesionalak bezain gogorrak, ez dago ikustea besterik partidu baten edo biren ostean gu baino pilota gogorrago edo biziagoak apurtuta bukatzen dutela hartzen duten tratuarekin. Nik, ordea, ez ditut horrelako zaplazteko gogorrik hartzen eta umeek oso ondo tratatzen naute, gustura jolasten dugu elkarrekin.

Gure bihotza goma mehe batez osaturik daukagu, hortxe dago gure izaeraren edo tiktak hotsaren giltza.

Bihotzak ez digu arazorik ematen gorputz edo larru azalak baizik, bihotzgatik balitz berrehun urte ere biziko ginateke.

Bestalde palarekin jolasteko pilotak arinago apurtzen dira eta asko sufritzen dute. Hauetaz akordatzen naizen bakoitzean!

Batzuk ez dute partidu bat bera ere amaitzen: jaio eta hil batera egiten dute. Nik uste dut eskuzkoei maitasun handiagoa digutela.

Egun gutxi direla nire senideekin egin nuen topo, txapelketa baten elkartu ginen. Berrizko pilotariak Iurretako pilotarien aurka jokatu zuten eta partidu hartan berriro saski berean egon ginen aspaldiko lagun batzuk eta ni.

Hasieran bi pilotari azaldu ziren gorritz jantzita, baina beste bik ere jokatzen zutela esan zidaten eta eztabaidan hasi ginen:

- Baietz ni atera lehenengo sakean!

Beste pilota batek erantzuten du...

- Ezetz, neu izango naiz lehenengoa ateratzen!

Bitartean lau pilotariak gu eskuartean hartu, igurtzi eta gurekin entrenatzen hasi ziren, lauetariko bat eurak gustukoen zutena aukeratzeko.

Gu bitartean geure solasaldiarekin jarraitzen genuen

- Berriztarrek baietz irabazi Iurretarrei!

Eta nik esan nuen ...

- Azkeneko tantoan ni atera baietz!


Gustura aritu ginen gure artean apustu eginez, gure saskitxoan ezin ka-biturik partidua ikusten eta Berrizko pilotariak animatuz.

Egun hartan behintzat nik egin nuen azkeneko tantoa eta Berriztarrek irabazi zuten partidua. Behingoz ni ere jendearen aurrean aritu nintzen haien giro zaratatsua entzunaz eta benetako txapelketa baten parte hartuaz. Gainera poz-pozik nengoen Berriztarrek irabazi zutelako partidu oso ona jokatuaz eta finala irabaziz.

Hormarantz burua besoekin babestuz eta gorputza kirikiño baten anztzera kizkurtuz joaten garenean errusiar mendian joatea bezala da. Eskuz eta hankaz hormari indar guztiekin jo eta buelta berriro atzeraka, airea tunel magikoa irudikatuz begietako negarrari ezin eutsiz.

Pilota plaza batean eman nahi dut azken arnasa, horma arteko airea zulatuz eta hurrekin jolastuz. Zuekin egin nahi dut nire azken tantoa.

Agur eta laster arte!!!







*Sara Murua*

Akzesita 13-14 urteko sailean  
Frai Juan de Zumarraga-Durango Institutua





*julene azpeitia lehiaketa 2008 urtea*



*Maiatzaren 6a*

### Maiatzaren 6a

Ia-ia ibiltzea galarazten zidan gona deseroso batekin lasterka nindoan kaletik zehar, eta bat batean mutil baten kontra egin nuen talka. Haserre begiratu nion denbora galarazi egin zidalako, baina gure begiradak gurutzatzerakoan ez nintzen ezer esaten ausartu. Mutil gaixoa aztoratuta eta lotsatua zirudien. Gauzak batu eta presaka egin nuen alde. Metro batzuk urrundu eta gero, atzera begiratu nuen eta mutil hura oraindik han zegoela ikusi nuen, pentsakor eta lurrera begira. Ez zitzaidan oso normala iruditu, baina momentu horretan ezin nuen denbora gehiagorik galdu eta bi-deari ekin nion. Goiz ederra egiten zuen arren, nik zeregin ugari nituen... baina... zer egin behar nuen?

Ez nuen ezer gogoratzen. Korrika egiteari utzi nion, eta kezkatuak eskuak aurpegira eramanez nituen. Burua erabat nahasturik nuen, urdaila bezalaxe... Gauza oso garrantzitsua zela nekien, eta denboraz larri nembilela ere. Nire ingurura begiratu erantzunak aurkitzen ahalegindu nintzen, baina ez zegoen modurik. Azkenik etsi egin nuen, eta denbora luzez hausnartzen egon ondoren zerbaitetaz konturatu nintzen: Lan gehiegi egiten nuen, eta horrexegatik sentitzen nintzen hain txarto. Momentu horretan guztia berdin zitzaidan, berdin zitzaidan lehen hain arduratuta egon izanaren zergatia... Izan ere, udaberriko egun zoragarri bat zen hura, eta ez neukan gogorik urdurituko ninduen ezer egiteko. Liburuak lurrera bota eta kale hartatik lasai urruntzen joan nintzen. Ezingo nuke zergatia azaldu baina aske sentitzen nintzen... beste pertsona bat banintz bezala...



Maiatzaren 6a

Leihoa irekitzerakoan udaberriko eguzkiaren izpi ahaltsuek logela osoa argiz bete zuten. Goiz zen, baina hain eguraldi ederra ikustean, birritan pentsatu barik eta bizarra moztu gabe, kalera atera nintzen egunaz gozatzera. Kalean ia ez zegoen jenderik; hala ere bizitzaz beterik zegoen. Etxeko lorategian pipak jaten ari zen gizon bat eskuarekin agurtu nuen, eta berak irribarre batekin itzuli zidan agurra. Kale amaieran emakume bat zegoen, oso ondo jantzita, baina urduri samarra, eta gainera presaka zebilen. Ez zaizkit batere gustatzen mota horretako pertsonak, lana besterik ez dute buruan eta bizitzaz gozatzen ez dakite. “Gizagaixoa” pentsatu nuen, egun honekin eta lan egin behar ...”

Orduan txakur bat nire atzetik zetorrela ikusi nuen, eta aurrerago zegoen emakumeari buruz bere iritzia galdetu nion. Ohikoa denez ez zidan ezer erantzun, azken finean, txakur bat besterik ez zen. Barretxo bat disimulatzen saiatu nintzen. Hain murgilduta nengoen txakurraren eta gure arteko elkarrizketa ergelean ez nuela ikusi azken segundora arte emakumea zuzenean zetorkigula. Ezin izan nuen erreakzionatu eta talka egin genuen bata bestearen aurka. Gauza guztiak lurrera erori zitzaizkion. Barkamena eskatu behar nioenean begirada zorrotz bat bota zidan. Gero bere liburuak batu eta joan egin zen. Zur eta lur geratu nintzen. Lurrera begiratzerakoan liburu bat ahaztuta utzi zuela ikusi nuen. Liburua hartzeko makurtu nintzen, eta, orduan, zeozer arraroa gertatu zitzaidan... Blokeatuta sentitu nintzen, eta bat batean gauza asko etorri zitzaizkidan burura. Mundua beste ikuspuntu batetik begiratzen hasi nintzen, baina sentazio arraro bat hautematen nuen neure baitan. Lan handia nuen, edo hori uste nuen.

Momentu horretan emakumea berdin zitzaidan, eta bere liburuak eskuan nuela konturatu barik, presaka alde egin nuen, zeregin mordoa nituen eta.

Maiatzaren 6a

Egunero bezala goiz esnatu nintzen. Pipa pakete bat hartu nuen sukaldeko armairutxotik eta etxe aurreko lorategian eseri nintzen. Normalean



atzeko patioan jaten ditut eguneroko pipak, baina hura egun berezia zen: inoiz ikusi dudan udaberriko egunik ederrena. Eguzkiak lorategi osoa argitzen zuen, horregatik erabaki nuen hara joatea. Jende gutxi zegoen kaltetik: presaka zebilen emakume bat, eta oso pozik zirudien gazte bat. Haiek ikustean zerbaitek atentziora deitu zidan: guztiz kontrakoak zirela, gutxienez itxuraz. Ez nituen ezagutzen, baina haiek biak segundo gutxi batzuetan behatzearekin bakarrik haien izaerak antzekoak ez zirela argi eta garbi ikusi nuen. Interesgarriak iruditu zitzaizkidan bi pertsona horiek, eta begiradarekin jarraitu nituen. Mutil gazteak eskuarekin agurtu ninduen nire etxe aurretik pasatzerakoan. Zergatik egongo zen hain pozik? Agian maiteminduta egongo zen, edo aspalditik ikusten ez zuen adiskide kutun batekin elkartzeko zorian zegoen... norbaitek daki. Gauza bat zein bestea izan, atsegina zen horrelako jendearekin noizbait topo egitea. Emakumeak nahiko deserosoa zirudien gona luze eta itsatsi bat zeraman, eta ezinezkoa badirudi ere, ia lasterka zihoan. Ahoa mugitzen zuela ikusten nuen: berekiko hitz egiten ari zela uste dut. Behar bada hitzaldiren bat birpasatzen egongo zen, edo kalkuluren bat buruz egiten. Bere aurpegian oso argi ikusten zen nahiko kezkatua zegoela. Bakoitza bere gauzetan pentsatzen ari zen, eta hori dela eta, bata bestearen aurka egin zuten talka, pelikuletan bezala. Emakumea lurrera eroritako gauzak jaso ondoren aurrera jarraitu zuen, eta mutila han geratu zen. Ikusle bezala, zerbaitez zurraragarriagoa espero nuen, baina itxaron egin nuen, zeozertatu arte, guztiak ezin baitzuen horrela amaitu. Eta gertatu zen. Bat-batean emakumea gelditu egin zen. Zorabiatua zirudien. Horixe bera gertatu zitzaion mutilari. Bakoitza kalearen mutur batean zegoen, eta biei airea falta zitzaizkela zirudien. Oso ikuskizun bitxia zen hura. Geroago, ia-ia biak denbora berean, beren bideari jarraitu zioten. Baina orain beste pertsona batzuk ziruditen. Ez nago itxuraz hitz egiten, baizik eta izaeraz. Gazteak kamiseta praka barrutik sartu zuen eta urduritasunez lasterka joan zen, liburu bat eskuan hartuta. Emakumeak, berriaz, ilea askatu eta liburuak lurrera bota zituen. Bere aurpegia erabat aldatua zegoen, aurpegi alaia eta irribarretsua zuen. Harrituta nengoen, eta nik neuk ere ez nuen sinisten orduantxe ikusitakoa. Nire buruari galdera pilo bat egiten nizkion, baina hau zen gehien kezkatzen ninduen: Zer gertatu ote da? Denbora luze bat egon nintzen galdera horri erantzuna aurkitzeko, eta, azkenik, ondorio hau ateratu nuen: erabat ezberdin edo alde-



rantzizkoak diren bi pertsona munduko puntu berean elkartzen direnean, trukatu egiten dituzte euren izaerak munduaren oreka ez hausteko.

Agian ez zen hori gertatu ... ez dago zientifikoki frogatuta, eta ez dut uste frogatuko denik. Momentu horretan ziurtasunez nekien gauza bakarra hauxe zen: jaten ari nintzen pipa paketea amaitu egin nuela.







*Eneko Sagardoy Mujika*

Akzesita 13-14 urteko sailean  
Kurutziaga Ikastola



julene azpeitia lehiaketa 2008 urtea



Munduaren aurpegi zitala

Atzo iluntzean azaldu zidan amak, gaur, itsasontzi bat hartu, eta itsasoan beste lurralde hobeago batera abiatuko garela.

Ni pozik nago. Ez baititut atsegin giro hau, herri hau, eta jende hau. Txabola ziztrin batean bizi gara; ez dut lagunik eta herrian beti gosetea eta egarria dira nagusi.

Beti gaude beroak zein goseak hilik. Baina amaxok dio, gaur, mundu berri bat ezagutuko dugula. Eguraldi onez, urez, jende lagunkor eta lanez beteriko lurralde batera goaz.

Goizean goiz esnatu gaitu ni eta nire arreba txikitxo Sahakay amak.

Ez dakit zein ordu izango zen, baina nik behintzat, ez dut batere lorik egin gau honetan. Ez nekien, zirrarak edo gose eta beroak eraginda.

Gure txabola zaharkitutik irten, gauza guztiak poltsa zikin batzuetan sartu (pare bat poltsa nahikoa ziren, ez baitugu beste munduko ezer) eta han abiatu gara, maldan behera, hondartza ingurura iritsi arte.

Jende mordo dago bertan. Adin guztietakoak, andre, gizon eta baita haurdu dauden bi neska gazte.

Itsasontzian pentsatzen nago ni, goizeko lehen eguzki izpiek, bekokia berotzen didaten bitartean. Nolako itsasontzia izan behar den, miseria hartatik at eramango gaituena. Handia? Janari askorekin? Urduri nago... Sinenen zaila den arren; ez dut inoiz itsasontzi baten gainean nabigatu eta.



Gu Senegal inguruko herrixka txiroetariko batean bizi garenez, gaixo asko ere badaude amaierarik gabeko jende multzo honetan. Nire amak dioenez, jende hori, lurralde berri horretan sendatuko dute. Azkenean, jendea builaka hasi da. Itsasontzia heltzeaz dagoelako izango dela pentsatzen dut. Baina nik ez ditut itsasontzi handi eta zuriaren kanpoaldea inon ez ikusten. Ezta ere ez marinelak. Hau ez da itsasontzia. Ikusi bezain pronto, nire amets dena zakarrontzira joan da.

Hau txalupa bat da. Txalupa luze eta estu-estu bat. Bertan ez gara denok sartzen. Gainera, honek, motore txiki bat du puntan, baina entzun dudanez, pare bat ordu iraungo du. Nola egingo dugu horren bide luzea, halako egur zati zaharkitu batean?

Aita eta amaren aurpegiak itsasontzian sartu bezain pronto aldatu dira.

Denok estu-estu gaude. Arraunak nonbaitetik atera ditu gizon zaharkitu batek. Honek Abd Ar Rahman du izena. Herrixkako gizon zaharretariko bat da. Bera, ordea, ez dator gurekin.

Gizon zaharkitu eta jakintsu honek dioenez, herrixkako arraunik sendo eta iraunkorrenak eman dizkigu, itxaroten digun bidai luzea egiteko. Hala ere, ni ez nago seguru ontzi honetan. Haizearen txistu epelak, eta arraunlarien lehenengo golpe gogotsuekin batera, ekin dio nire arrebak negarrari. Hori besterik ez zitzaigun falta.

Berehala, eman dio andre zahar batek jostailu bat. Untxitxo bat zen. Untxi txuri-urdina. Ziztu-bizian isildu da. Eskerrak... Eta eskerrak eman dizkio amak.

Momentu batean galdu dugu begi bistatik gure herrixka. Hainbeste oroitzen, kantuz eta momentuz beterikoa berori.

Halako batean, ama negarrez hasi da. Ez dut ezer ulertzen, baina aitak azaldu dit, amari pena handia ematen diola gu, herrixkatik at bizitzeak. Bera eta bere arbaso guztiak, han bizi izan baitziren hain beste urtetan.

Minutu batzuetara lasaitu da ama. Eta denon isiltasun bateragarriaren artean, lokartu egin dira denak. Ni eta beste mutil gazte bat izan ezik. Honek nire adinekoa ematen du. Eta ontziko egur zati bat apurtu, eta labana batekin, punta zorrozteari ekin dio.

- Horrela jarraituz gero, berehala gara ontzi gabe. –gehitu dut nik zerbait esatearren.

- Marrazoak hiltzeko da. –erantzun dit berak tonu mehatxagarrian.

Orduantxe, zirrara desatsegin batek zeharkatu dit gorputza. Marrazoak...

Zer gertatuko litzateke ontzia biratu, eta uretan erori ondoren, marrazoek hozka egingo baligukete.

Ezin egonean gelditu naiz minutu batzuk. Ordurako esna daude, ontziko nabigatzaile gehienak. Horien artean, nire aita, zein ni baino bizpahiru metro eskumarago eserita dago. Nire alboan, ama dago, Sahakay altzoan loak harturik duela. Nire alboan, berriz, haurdun dagoenatariko bat dago etzanda, lo seko.

Egon ezinaren egon ezinez, amari itaundu diot ea marrazoak ote dabilzan gure inguruan biraka, gu noiz eroriko zain. Baina duda guztiak argitu dizkit “ez, hemen ezingo liriateke bizi”. Ez dakit ni lasaitzearren esan duen. Baina, beno, lasaiago nago.

Ez dakit zein ordu izango den. Hori bai, gose zein egarri itzela dut. Eguzkiak, bere gogo guztiakin egiten du dirdira, eta 40º pasatxo izango direnez, kontua ateratzen dut eguerdi partea edo izango dela.

Denok esna geunden momentu batean, beroaren eraginez, gizon gazte bat, 20 urtekoa edo, itsasoko ura edateari ekin dio. Badirudi, haserre dagoela. Herrixkako portutik irten garenetik, kexuka ari baita, ura dela eta ez dela. Bere ustez, denok hilko garelako egarriz. Nik amari esan diot, ea hori egia den. Baina berak, berriz ere lasaitu nau: “ez, ur botilak daramatzagu”.

Momentu honetan kezka bakarra dut: zergatik edaten ote du itsasoko ura botiletakoa hartu beharrean? Baina dirudienez, “itsasontzi” honetan, jendea berekoia da. Hainbat liskar sortu dira eguneko lehen orduetatik uraren kontua medio.

Noizean behin, hartzen dut botilako ura, benetan bero egiten baitu. Gizona gero eta kexuago da egarria dela eta.

Ez dut ulertzen. Behin eta berriz edaten du itsasoko ura. Badirudi, burutik joana dagoela. Denek begiratzen diote arraro itsasoko ura edatean. Niri ez zait beste munduko ezer iruditzen. Baina beno... Nire amak dioen moduan, nagusiek, badakite zer egiten duten. Eta kasu egin behar.

Handik ordu-erdira edo, gizona, kolore arraro bat hartzen hasi da. Lila kolorekoa edo. Orain, ez du arnasarik hartzen. Oso arraroa da gertatzen ari zaiona. Amari galdetu diot ea urik emango diogun. Ezin da mugitu ere egin txalupa ertzera. Baina amak, inoiz baino berekoiago, ezezkoa eman dit. Guk behar dugula ura. Eta konpondu dadila bera. Berehala, gizon batzuk, bere gorpua hartu, eta uretara bota dute. Harriturik nago. Ez dute han utziko gizona. Ez dut uste. Baina bai, itsasontzia aurrera doan arren, gizona atzean utzi dugu. Babesik gabe, eguzkiaren agurraren menpe.

Batetik bestera hasi da iluntzen. Zerua amatatu eta gure ontziko kri-seiluak piztu ditugu. Noizean behin, entzuten dira gizon-emakumeen ke-xuak. Ura eta gosea medio.


Ni gero eta larriago nago. Goragalea ere etortzen zain behin edo behin. Eta batzutan oka egitera ere heldu naiz. Ez da ez goera xamurra.

Beste emakume eta mutil gazte bat uretara bota dituzte bidean zehar.

Oso arduratuta nago niri ere ez gauza bera gertatuko zaidanaren bel-durrez. Baina aitak oso ondo begiztatuta nauka, zoro haizeak joz gero itsasoko ura edaten saiatzen banaiz. Esaten baitit, ur honek, gatza duenez, egarria eragiten duela. Egarri ase gabea. Beraz, ez edateko.

Lo apur bat egin ondoren. Eguneko lehen argi ziztadek esnatu naute. Hotz egiten duen goiz bat da. Ez nago eroso. Goragalea, gosea, pixagurra, egarria eta hotza dut. Lehendabizi oka egin dut itsasora. Ez nago bat ere ondo. Ontziko partaide gehienok sukarra dugula ohartu gara. Manta batzuek tapatu, eta noizean behin, oka eta gure eginberrak egitera besterik ez gara jaiki.

Eguna pasa ahala, ni hobetzen joan arren, ama eta aita gaixotzen hasi dira. Sahakay altzoan hartu dut. Eta negarrez hasi bezain pronto, untxitxoa eman, nahiko bustia zena ordurako, olatuen golpeek eraginda, eta berehala isildu da.



Eztul artean, amak esan dit, gutxi falta dela gure herri berrira heltzeko. Ondoren eztulka jarraitu du.

Gaur, egunak eta egunak pasa ondoren, seigarren egunera iritsi gara. Goiz partea da. 11-ak edo. Nahiko jende gutxi gelditzen da ontzian, eta egoera oso eskasean. Gehienak, deshidrataturik edo gaitzen batek jota hil dira. Zorte onez, aita, ama Sahakay eta laurok, nahiko gaixorik eta egoera txarrean egon arren, bizirik gaude.

58 (ume jaio gabeak barne) pertsona sartu baginen itsaso zabal eta helburu berrien ate honetara, orain, 19 (ume jaio gabeak barne) pertsona besterik ez gaude. Hauen artean, hasiera-hasierako egurraren mutila, eta bi andre haurdunak. Ordu batzuen buruan, andre hauetako bat, larri-larri jarri da. Ez da gose, ez da egarri, eta sukarrik ere ez du: erditzeke dago. Berehala joan zaizkio ama eta beste pare-bat andre laguntzera.

Harrigarria dirudien arren, bertan erditzera doa. Nik, ez nuen sekula erditze bat ikusi. Eta han hasi da. Garrasika... Ontziari golpeak emanaz. Ez du gizonik, eta niri pena apur bat eman didan arren, bizitzak, horrelako jokaldi txarrak pasarazten dizkigu.

Azkenean, esfortzu askoren ondoren, heldu gara Espainiara. Jendeak aurpegi arraroz begiraten gaitu. Mediku batzuk ere badaude. Eta kamera handi batzuk. Dena dago jendez josirik. Ez dut ezer ulertzen. Hau ez da nahi genuen bizitza. Eskuoihal batzuk eman dizkigute.

Amaliaren haur jaioberria hil egin da heldu bezain pronto. Txikiegia da. Amalia negarrez ari da. Gelditu gabe.

Jendea argazkiak ateratzen ari zaigu. Makina asko daude pasealekuan, jende ugari, itsasontzi bizkorrak, ... Mediku bati, bere keinu eta aurpegi-eragatik, Amalia, oso egoera txarrean dagoela ulertu diot, odol galdua-rengatik.

Hondartzako pasealekua zapaldu bezain pronto eraman gaituzte polizia auto batean. Ez dugu ezer egin. Ez dugu inor hil. Ospitaletik pasa ondoren, esan digute, hegaldia harturik dagoela Senegalera.

Esfortzua alferrikakoa izan da. Berriz izango gara bueltan... Ez dago eskubiderik... Oso egoera txarrean gaude, baina botika batzuekin bidal-





tzen gaituzte behintzat. Ez da nahikoa. Bizitza zikin eta injustu honetan bizitzen jarraitu beharko dugu. Ezin da ezer egin jada.

Orain, bueltan gara Senegalera. Ama eta aita lur jota daude. Ez dugu irtenbiderik. Bueltatu, edo gurasoengandik banatu. Inork ez gaitu nahi. Gure lur siku eta txiroek besterik ez. Dirudienez, gureak ez du bueltarik. Berehala gara gure herrixkan hegaldiaren ondoren.

Hildakoen familia kideen negarren artean joan gara abandonatutako gure txabola zaharrera. Han itxarongo diogu heriotzari. Ez dugu atzera bueltarik. Hilotz ugari gelditu dira itsasoaren barrenean arrain artean. Ez dago besterik, aurrera egin... Horrelakoa da bizitza...







*Itziar Lauzirika Salegi*

Irabazlea 15-16 urteko sailean  
Kurutziaga Ikastola



*julene azpeitia lehiaketa 2008 urtea*



*Kupidoren gezia*

Orain dela bi urte hasi zen dena, ezkondu ginen gau hartan lehena, ondoren handiago bat, gero itzelezkoa, hurrengoan ikaragarria eta azkene-koak lurrean etzanda utzi ninduen, hiltzorian dagoen kale txakur bat baintz bezala.

Bost urte generamatzan elkarrekin eta haurdun nengoela ohartaraztean ezkontzeko erabakia hartu genuen, dena printzesen istorioen antzera izango zen: ezkondu, umeak izan, elkarrekin zahartzarora heldu... egun haietan irribarrea zen nagusi gure aurpegietan.

Ezkontza eguna konturatu gabe heldu zitzaigun. Aurreko gau ilunean ez nuen lorik egin eta minutuak ordu iruditu zitzaizkidan goizeko seietan iratzargailuak jo zuen arte. Jaiki, leihotik begiratu eta bai! Eguraldia lagun genuen, dena polita izango zen! Presaka gosaldurik, ile-apaindegira joan, soineko polit hura jantzi eta hamabietan hainbeste maite nuen gizonarekin ezkondu nintzen nire sendi eta lagun minenen artean. Dena pentsatu bezala zihoan, kantuan eta dantzan amaitu genuen bazkaria inolako is-tilurik gabe .

Gau hura ere magia bete izango zen, txundigarria, biok bakarrik izarren azpian, txanpan botila, kandelaz inguraturik... Baina txanpan botila ireki zuenean dena pikutara bidali zuen. Lehenengo tragoxka bazkarian edan zuenarekin nahastu zitzaionean zorabiatua sentitzen zela zioen, bigarren tragoxka eta gero lizunkeriak esateari ekin zion eta botila amaitu zuenerako bere ukabila apurka-apurka hurbiltzen ikusi nuen. Zer egin ez

nekiela ikaraturik begiratu nion, ukabila gero eta hurbilago ikusten nuen, niri ere xanpainak kalte egin ote zidan? Ukabila gero eta hurbilago, hurbilago nire aurpegian talka egin zuen arte. Ez nuen garrasirik txikiena ere atera, buelta erdi eman eta malkoak nire begi ilunetatik irten nahian zebiltzala ohean etzan eta gau guztia bertan eman nuen arnasestuka gertatu zena amets gaizto bat izan zelakoaren esperantzan. Goiza heldu zen azkenean. Aurreko gauean istilua gertatu zen balkoiko leihotik argia sartzen zen eta mutil ezkondu berria nire ondoan ikusi nuen buruz gora etzanda, lozorroan. Hain zen ederra, hegoak bakarrik falta zitzaizkion ainguruxo bat izateko, ederra zen, maitagarria, itsuturik ninduen. Jaiki bezain laster, galtzontzilotan eta aharrausika, barkamena eskatu zidan:

-Maitea barka nazazu ez nuen nahita egin, ez zen nire asmoa zu... Ez dut berriz egingo, alkoholaren efektua izan zen, benetan diotsut, ez dut lorik ere egin bart gertatu zenari bueltak eman ez -zioen ahoa zabal zabalik gailera bat jaten zuen bitartean.

Hain damutua zirudien... hain nengoen itsututa, hain nintzen ergeta... Ez zuela lorik egin? Elefante batek baino soinu gehiago atera ondoren hori esatera ausartzen zen? Baina Cupidoren geziak bihotz osoa zeharkatu zidan ezagutu nuen egunean eta maitasunak itsuturik ninduen.

Haurdunaldia arazorik gabe zihoan nire sabela pixkanaka-pixkanaka loditzen. Goragalea ohikoa zen goizean eta "antojo" ugari nituen. Egun baten txokolatea, bestean izozkia. Bederatzi hilabeteak aurrera zihoazen aldi berean bakardadea hurbiltzen zen nigana. Nire gizona gero eta gutxiago etortzen zen etxera laneko afariak zirela eta. Jaikitzen nintzenez bakarrik geunden, haurtxoa eta ni eta oheratzean gauza bera. Hilabete haietan poztasun bakarra sabelean nuen haurtxo hura neskatoa zela esan zidatenean hartu nuen. Zerrenda luzeak egin nituen izenez beterik eta sukaldeko mahai gainean uzten nituen bere aitak ikus zitzaizkan. Bost hilabeteko nengoe-la hamabiak aldera itzuli zen, esnatu egin ninduen eta oihuka hasi zitzaizkan zoro baten antzera, alkohol usaina zerion alde guztietatik:

- Zein lodi zauden! deformatua dirudizu! txokolatea da zure dieta ala? Ez nauzu erakartzen. Zer nahi duzu emagaldu bila irtetea ala? Haiek zu baino gogo gehiago jarriko diote.

Ez nintzen ohetik jaiki ere egin zera pentsatuz: “ez da bere izateko era, alkoholaren eraginak dira”. Egia esan, esandakoak asko mindu ninduen, aurrekoan ukabilkadak baino gehiago, hala ere, ez nion ezer galdetu goizean bere iratzargailuak jo zuenean. Egun hartan afaltzeko orduan heldu zen etxera, biok isilean afaldu eta damutu aurpegiarekin barkamena eskatu zidan:

Barkatu esan eta besaulkira abiatu zen egunerokoa hartuta. Uste dut aldi hartan Kupidoren gezitxoa zerbait kanporatu zela nire bihotzetik, aurpegian atera nizkion akats txiki batzuk: sudur handia zeukan eta belarri ikaragarriak, hala ere, bere begiei begiratzean itsasoan igeri egiten nengoela iruditzen zitzaidan, bertako haizea senti nezakeen, harea ukitu... Oraindik ere, erdi zorabiatuta neukan mutilak. Berriz egin zuen berriz errepikatuko ez zuena. Ordura arte berriz ez zela gertatuko uste nuen, baina egun hartatik aurrera atearen hotsa entzuten nuen bakoitzean egun hura gogoratzen nuen.

Izen zerrenda haietatik batzuk baztertzen ibili nintzen, bakarra geratu zen arte: Kaittana. Ez nuen izena nire senarrarekin hautatu baina ez zuen inolako arazorik jarri esan nionean. Egunak Kaittanarekin bakarrizketan igarotzen nituen eta gauak irakurtzen etxeko atearen hotsa entzuten nuen arte. Sei hilabete zeuzkan nire alabatxoak, eta une hartan etorri zen hurrengoa: afal ordurako etxean zen kristoren ardo usainaz. Nik, bera ikusitakoan, mahaia jartzeari ekin nion. Hitzik esan gabe hurbildu zitzaidan, era oldarkor batean eskumuturra hartu eta alde batera eta bestera okertzen hasi zitzaidan:

- Zure erruagatik dirua gastatu behar izan dut! Ez duzu ezertarako baliio, aurrezkietatik hartu behar izan dut dirua!

- Aska nazazu! Min egiten didazu!

- Ez, zure erruagatik, aurrezkiak gastatu ditut! ez didazu nahi dudana ematen, kupel horrek! Emagalduenengana jo dut eta dena kendu didate! Baba-lore hori!

Negarrari ekin nion eta ezin nuen gelditu, ikaragarritzko bultzakada eman zidan eta ohera joan zen. Gau hartan ez nintzen oheratu, negarrari ezin eutsi igaro nuen gaua. Ahalik eta zarata gutxien ateratzen nuen Kaittanak ni sufritzen ez entzuteko. Ez zen egoera erraza izan, eta oraingoan Kupi-

doren geziak bihotzaren punta besterik ez zuen ukitzen. Maite nuen baina ez nion alderdi positiborik ikusten, beno, gezurra, gehien maite nuen izakitxoaren aita zen. Kaittana zen aurrera egiteko indarra ematen zidana. Nire familia ez zegoen hemen: guztiak beste munduan zeuden istripu baten ondorioz eta momentu batzuetan haiengana joatea zen nire nahia, baina Kaittanak bultzatzen ninduen tontakeria hori ez egitera.

Zazpi hilabete eta erdi zituen nire maiteak. Bere aita egunero etortzen zen mozkortuta etxera eta usain nazkagarria zeriola. Ez zuen pijama ere janzten: lo, jan, gosalduta kalera irten, dena arropa berberarekin egiten zuen eta askotan lastima sentitzen nuen maite nuen gizonarekiko.

Ni zazpi hilabeteko nengoen. Egun haietako batean egunero lez mozkortuta heldu zen etxera, alfonbrarekin irristatu eta hitz goxoak esaten hasi zen. Hura ikustean damu zela iruditu zitzaidan, ohetik jaiki eta laguntzera joan nintzaion, izugarrizko gerriko mina nuen arren. Besotik heldu nuen une baren beste eskuarekin besoa heldu eta garrasika eta ostikoka hasi zitzaidan:

- Putakume halakoa zuk hilda nahi nauzu, horregatik laban egiten du alfonbrak! Zer bota diozu? -nik bitartean sabela heltzen nuen Kaittana babestu nahian.

- Zer? Hain baliagarria da zure sabela lodia? Ja ja ja! Sabel horrekin itzelezko foka ematen duzu! Ja ja ja.

-Min egiten didazu, ez nazazu jo, utz nazazu bakean!

Borrokaldi hartan lurrean bukatu nuen eta bihotzean neukan gezia guttiz desagertu zen. Gizon hura hain zen nazkagarria, higuingarria, gorrotagarria. Gau hura eskaileretan eserita igaro nuen manta batekin tapaturik. Ez nuen gizon hark hartzen zuen aire bera arnastu nahi. Goizean, kalera irten zenean, ni etxera sartu nintzen, aurpegira begiratu gabe. Honez gero ez zegoen hurrengo eguneko barkamenik. Ez dakit zer egingo nuen barnean neraman pertsonatxo gabe, mundu honetan ezer eta inor baino gehiago maite nuen umetxoa gabe.

Hilabete egin genuen elkar begiratu gabe, baina nik bertan jarraituko nuen, nire alabak aita ezagutuko zuen, gero berak erabakiko zuen bertan jarraitu edo ez, gainera nik ez nuen lanik egiten eta, hortaz, nola biziko







ginen? Erabakia hartuta zegoen eta edozer jasango nuke Kaittanagatik. Azken eraso egun argiz gertatu zen, etxera heldu eta zuzenean niregana etorri zen:

- Zertan gastatu duzu hainbeste diru, e? Esan? 30 euro zertan gastatu dituzu?

- Janaria erosi dut

- Janaria, zertarako behar duzu jan, erreserba ederra duzu eta. Balea zu baino lirainagoa da!

Momentuan lepotik heldu eta atearen kontra jaurti ninduen zuen indar guztiaz. Damba! Esnatu nintzenean lurrean nengoen kale txakur bat banintz bezala. Konortea galdu nuen eta sabeleko min ikaragarria sentitzen nuen. Ahal bezala jaiki eta ospitalerako bidea hartu nuen sabela maitasunez helduz. Urgentzietara sartu bezain laster erditzen nengoela esan zidaten. Nik berehala haurraren aitari deitzeko esan nien. Oso polita izan zen Kaittanaren jaiotza. Aitaren begi urdinak zituen, eta ile beltza, nirea bezalakoa. Gogoan dut 361. logelan geundela, txunditurik neukan bizitzaren zikloak. Hain zen polita. Medikua ikusi nuen logelara aurpegi tristearekin sartzen, aurpegi beltza zekarren.

- Sentitzen dut andrea baina ... zure gizonak istripu larri bat izan du eta ... hil egin da, mozkorturik zihoan eta kamioi batekin egin du talka.



Burua makurtu zuen. Uff!! Irribarre egin nuen, bizi berri bat hasiko nuen nire alabarekin batera handik urrun.

Gaur nire alaba emakume eder eginda dago. Nik berriz hura gogoratzen dut maiz eta ez dakit nola maite izan dudan horrenbeste gizon hura. Espero dut konfesatua harrapatu ez izana eta sufriarazi zidan gutzia infernua ordaintzea. Istorio honekin tratu txarrak jasotzen dituzten emakume guztiak salatzerara joan daitezela espero dut. Nire istorioa ez zen gaizki amaitu baina baliteke ni bezala egon diren emakume asko orain beste mundu horretan egotea. Nik nire aletxo botatu dut lurrera, orain lur hori emankorra izatea behar dut eta euri eta eguzkiaren laguntza. Emakumeok, izan eguzki, euri edo lur emankor!

Eta ez ezazue atzera begiratu, Cupidoren geziak agertuko dira-eta, berriz ere, zuen bihotzetan.

Tratu txarrak bere azala urratu duten emakumea.





*Paule Odriozola Ogiza*

Akzesita 15-16 urteko sailean  
Kurutziaga Ikastola



julene azpeitia lehiaketa 2008 urtea



Kaixo, agur

Afrika maite dut, afrikarrak maite ditut. Baina beste herri baten bizitzera kondenatu naute. Galdetu ote zidan inork zer egin nahi nuen? 7 urte nituen, badakit, baina argi nuen, afrikarra nintzen eta ez euskalduna.

Gogoratzen dut bizitza jaioterrian. Gogoratzen ditut gurasoak. Kongon bizi ginen, bertako txaboletariko batean. Ez genuen diru askorik, baina aitaren lanaz bizitzeko lain ateratzen genuen. Lurra, eguzkia, lana. Ezin ditut ahaztu bertako egunsenti biluziak. Lainorik ez, lantegirik ez, ezta industrializazio arrastorik ere. Lasaitasuna eta etengabeko amodioa gure herrialdearekiko, beti dut afrikar espiritua bihotzean. Bertako herritarrak, umilak, langileak, ez ditut inoiz ahaztuko.

Hamar anai-arreba ginen, ni seigarrena. Gehiegi sarritan gose zen amarrentzat. Ezin izan zituen hamar erditze jasan. Nire anaia gazteena jaiio eta berehala hil zen. Pare bat segundotan familia oso bat pikutara. Aitak ezin zuen aurrera egin guztiekin, norik zainduko gintuen bera lanera ateratzen zenean? Bi aukera zituen. Edo semeak gosez nola hiltzen ziren itxaron edo gehien maite zituen horiek beste pertsona batzuen besoetara eskaini. Argi dago, denok aukeratuko genuen bigarrena. Aitari, aldiz, asko kostatu zitzaion erabakia hartzea. Argia zen, bizkorra eta ehiztari trebea. Denbora luzez entzun ahal izan nituen “zure aitaren trebezia ikaragarria da, Mahli” edota “askok nahiko genuke zure aita bezalakoa izan”. Zoritxarrez, munduak aita galdu zuen gu haur zentro hartara iritsi ginen egun berean.

Handik aurrera bizitza guztiz aldatu zait. Lau bat urte eman nituen etxe berri hartan. Kongo osoan etxebizitza gutxi egongo dira ume egoitza ha-

ren antzekoak. Handia zen, eta umez gainezka zegoen. Zoriontsu izan nintzen urte haietan, oso zoriontsu. Harrigarria bada ere, oroitzapen garbiak gordetzen ditut. Berton lagun asko egin nituen, eta anai-arreba guztiakin harreman ezin hobea finkatu nuen. Sildha, Alumba, Kahol, Samba, Mamadou, Oumar, Adama, Ali, eta Rachid. Ezin ahaztu anai-arreben izenak. Geroztik ez ditut gehiago ikusi, agian bai, ez dakit. Ez ditut haien aurpegiak gogoratzen. Nire nahia da egunen baten beraiekin elkartu ahal izatea.

Kongoko egoera nahiko pobrea da. Afrikako beste lurralde gehienentzat antzerakoa. Ez genuen ondo jaten, eta gaixotasun txar batek heriotza suposatzen zuen. Baina, hala ere, ondo bizi ginen, gerrarik eta miseriarik gabe.

Uda zen, bero handia egiten zuen goiz hartan. Egunero lez aurkitzen nintzen umezurtzen zentroan, baina ez banekien ere, egun hura ez zen beste modukoa. Denbora hartan gogoratzen ditut umezurtegia utzi eta beste herrialde batzuetara alde egiten zuten umeek. Bizi kalitate onagoa eskaintzen zieten beste familia baten bizitzeko aukera ematen zieten. Denok genekien gu izan gintezkeela hurrengoak, baina horretan pentsatu ere ez genuen egiten. Zoritzarrez, bai, ni nintzen hurrengoak.

Goiz hartan zentroko arduradun nagusiak nirekin eta han zegoen beste mutiko batekin hitz egin nahi zuela esan zigun. Beste mutila Lehon zen, nire adineko ume argal eta mehea. Biak sartu ginen beldurrez dardarka zentroko gela hartan. Barruan zegoen Kaul, zuzendaria, irribarrez. Sartu bezain laster sumatu zuen gure ezinegona.

- Trankil umeok, berri onak ditut zuentzat. Urteetan espero izan duzue bizitza hobe bat, Kongotik urrun. Hemen zaudeten ume guztien ametsa da. Baina zuei beteko zaizue. Zorte handikoak zarete Lehon eta Mahli. Benetako zoriona ezagutuko duzue, familia berri bat eta bizitza ezin hobea ziurtatzen dizuet.

Eta horrelako beste hamar tontakeria esan ostean, besteengandik agurtzeko esan zigun. Nik ez nuen ezer ulertzen. Zentro hura zen nire bizitza, handik alde egiteak heriotza suposatzen zidan. Bizitza berriari ekingo nion, berdin zion zein iragan nuen. Dena ahaztu beharko nuen eta beste leku baten jaioa nintzela sinistu, nahiz eta leku horretako pertsonekin ez hizkuntza, ez kolorea, ezta kultura ere erdizkatu.



Euskal Herrira iritsi nintzen, konkretuki, Bilbora. Bertan, aireportuan, familia bat nuen zain. Mutil eta neska bikote bat zen, 30 bat urtekoak. Zuriak eta ilehoriak. Heldu bezain laster besarkatu ninduten, beraientzat opari bat bezalakoak nintzen. Niretzat hura zigor gaizto bat zen. Beraiek irribarrez, eta ni negarrari eutsi ezinean. Agian, oso nagusi hartu ninduten, baina Kongon ziotenez, edozein adin zen egokia miseria eta infernu hartatik alde egiteko. Egia zen bertako egoera ez zela batere ona, baina nahia-go, gutxienez, familiakoen artean hil. Ez zidan inork inoiz zer egin nahi nuen galdetu, ohituta nengoen nire erabakiak beste pertsona batzuk hartzen zituztela ikustera. Hala ere, suposatzen da zortedun sentitu behar nintzela.

Miren eta Joselu zuten izena. Garaiak ziren, Kongon gutxi ezagutu nituen hain luzeak, eta kolore ilunez janzen ziren. Ez zeramaten zapirik ezta apaingarririk buruan. Mirenek lepoko bat zeraman, gorria eta itsusia. Aspergarriak ziren itxuraz.

Oinak lurrean jarri nituen unetik antzeman nuen aldaketa herri bate-tik beste honetara. Gezurra zirudien biak mundua izeneko leku berdina-ren barruan aurkitzea. Bilbo ikaragarri zatarra zen. Umezurtz egoitza baino are handiagoak ziren eraikuntzez gainezka. Nola liteke hainbeste jende, hainbeste kotxe, hainbeste eraikuntza hain leku txikian? Nork auke-ratzen zuen leku hartan bizitzeko? Ulertu nuen nonbait badagoela jendea ni baino okerrago bizi dena. Baina Mirenen eta Joseluren etxera iristean konturatu nintzen beraientzat gu ginela txarto bizi ginenak. Milaka apa-ratu zeuden: telebista, irratia, sukaldea, logela asko, pare bat komun. Zer-tarako nahi zuten hainbeste? Gauza horiek gabe ezin zitezkeen bizi? Esaten zidaten teknologia aurrerakuntza handia zela eta pena bat zela Kon-gon horrelakorik ez izatea. Harrituta nengoen. Baina nire barne indarrak lagundu zidan Afrika ahaztera, eta bizitza berrira egokitzera. Orduan ez nekien baina beranduago konturatu nintzen, 18 urte bete ostean berriro ere libre izango nintzela, eta Afrikara bueltatzeko aukera izango nuela, be-raz, oraina bizitza erabaki nuen.

Nirekin etorri zen beste mutila ere, Lehon, Bilbora ekarri zuten. El-karrekin pasa genituen bizitza berriko une gehienok, gure iraganarekin amets eginez. Ikastola berean hazi ginen. Bertan klase ugari ematen genituen ira-



kasleekin eta baita ikaskide askorekin ere. Bertako hizkuntza, euskara, berehala ikasi nuen. Hasieran ez genuen inorekin hitz egiten, ezta saiatu ere ez. Baina denborarekin konturatu ginen ez zegoela atzera bueltarik, eta lagun berriak egiten hasi ginen, hori bai, gu biok beti batera. Horrela ezagutu genituen Nerea eta Beltzane.

Bitzita Euskal Herrian guztiz ezberdina da. Goizean goiz jaiki eta ikastolara eramaten ninduten autoz. Berton bazkaltzen nuen. Ez nuen inoiz ikusi hainbeste janari batera. Eta ezin nuen ulertu nola zitekeen umeez janaria ez jatea edota lurrera botatzea. Baina zer zen hura? Burutik txarto zeudela ulertu nuen, eta horrek nire harremana besteekin ere gehiago zaildu zuen. Zorionez, Anek eta Beltzanek esan zidaten txarto ohituta zeudela, besterik ez. Baina benetan pertsona paregabeak izan litezkeela. Nik hiru lagun besterik ez nituen, eta ez nuen gehiagorik behar.

Gustuko nuen etxera bueltatzea arratsaldez. Etxebizitza oso atsegina zen, eta faltan botatzen nituen gurasoak aurkitu nituen behingoz. Nire barnean bazegoen zerbait nire benetako gurasoak guraso euskaldunekin erlaxionatzen zituena. Maite nituen, eta maite ninduten. Ez dakit nola eskertu euskara irakasten, jolasten, lekuak ezagutzen... eurekin pasatu dudana denbora guztia.

Nire edukazioa zuei sor dizuet. Bizitzaren funtsezko baloreak erakutsi dizkidazu. Nire bizitzako urte garrantzitsuenetako protagonistak izan zarete. Nire gurasoak. Baita nire lagunak ere. Egia da ez naizela erraz egokitu Euskal Herrira, agian ez naiz guztiz egokitu. Baina zuen saiakera guztiz eskertzekoa da. Hala ere, badakizue ni beti izango naizela afrikarra...

Orain 22 urte bete ditut. 4 urte daramatzat libre, esan liteke euskaldun sentitzen hasia naizela. Maite dut euskal kultura eta maite ditut euskaldunak. Baina nire lekua ez dago hemen.

Miren, Joselu, Ane, Beltzane, Lehon... eskertzen dizuet nire bizitzako 15 urte hauekin pasatu izana. Ez nuen sinesten etorkizunean, baina orain behingoz zortedun sentitzen naiz. Ez dut bizitza ohiko bat, baina bizitza paregabea da. Eta zuei zor dizuet. Tristeza bada ere, banoa. Nire barruan badago zerbait bueltatzera naramana. Etorri nintzenetik burutik joan ez zaidan ideia bat. Nahiago nuke orain alde egin eta sentitzen zaituztedan moduan beti gogoratu. Duela bost urte izan nuen anaiatxoia ondo



zain ezazue. Berarekin guztiz zoriontsu izan zaitezke. Denok genekien momentu hau iritsiko zela, arinago edo beranduago. Ez zaituztet inoiz ahaztuko, eta espero dut kontaktu etengabea egongo garela. Bueltatuko naiz, gutxien espero duzuenean, hor izango naiz ate joka Gran Via-ko 44.ean. Ez ditut agurrak gogoko, nahiago hemen idatzita utzi nire sentimenak. Eta poztan naiz. Banoa, aireportura, itzuli nintzen lekura. Kolore ilunez jantzitako bi ezezagunek besarkada hura eman zidaten toki berberera. Orain gehiago eskertuko nuke. Maite zaituztet, beti maiteko zaituztet. Agur Euskal Herria, kaixo Afrika.

Agur bihotz bihotzez.





*Jon Joseba Aizpurua Antia*

Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean



*julene azpeitia lehiaketa 2008 urtea*



*Liztorraren galbidea*

- I -

Estreinatu berriko 2007ko lehen laneguneko goiz hartan hasi zen guztia. Jaiegunetako gehiegizko jan-edanen ondoren, nire bizilekutik –hots, Zedarrri herritik-, Bilboko lantokiraino heltzeko bidaia ohi baino astunagoa gertatu zitzaidan. Alabaina, hiriburuan sartzeko auto-ilarekin ez nuen arazorik izan zorionez. Zirudienez, jende asko zebilen oraindik opor-egunekin.

Ibilgailua lantokiko aparkaleku erreserbatuan utzi, sarrerako zaindaria eta ibilguetan zehar gurutzatu nituen lankide bakanak agurtu -jadanik automatikoki ateratzen zitzaidan “Urte Berri On!” batez-, eta nire bulegoko atea zeharkatu ostean, ordenagailuaren aurrean eseri nintzen une horretan bertan hasi zitzaidan sakelakoa kantari, Benito Lertxundiren “Txoria txori” doinuaz. Zortziak ez ziren oraindik. Segapotoaren pantailan “Ainhoa-OZK” hizki salatariak ageri ziren. Ainhoa, Zedarrriko “Ortzemuga Zabala Kutxa”-ko kudeatzaile komertziala zen, noizbehinka deitu ohi zidan, egiaz txit aspergarriak gertatzen zitzaizkidan inbertsio-zorroren sustapen-kanpainetaz berri emateko.

“Urte Berri On, Ainhoa! Zer moduz hasi duzu urtea?”, galdetuaz oldartu nion, “inbertsio-zorro” edo “sustapen” hitzak entzun orduko, solasaldia eteteko asmo tinkoaz. Halere, Ainhoarenarekin zerikusirik ez zuen ahots gazte eta melodiatsu batek erantzun zion ezustean nire hanka-sartzeari, eskerrak emanez eta beste hainbeste opatuaz neuri ere lehendabiziz, eta Izaro izena zuela argituaz segidan. Izaro Jauregi. Hasiberria. Ain-



hoaren ordezkoa omen zen, honek lehiako beste kutxa batean lanpostu hobe aurkitu eta hanka egin ostean, bere berbetan. Mintzaira umoretsu haren aitzinean, ezin izan nion barreari eutsi.

Nire jarrera zuritu nahian, barka ziezadala eskatu behar izan nion, antzeko esamolderik aspaldian ez nuela entzuten eta, unibertsitatean nentzilen garaietatik gutxienik, gehitu nion. “Beno Unaxxx, zure ahotsa entzunik, zin egingo nuke nik unibertsitateko garai horiek hain urrun ere ez zaizkizula geratzen!”, ihardetsi zidan tximista bezain azkar. Nire ize-na hain era sentsualean ahoskatzeak alde batetik, aurpegirotutako losintxak bestetik, koloreak gorriarazi zizkidan ume-mukitsu prakamoztuna banintzan. Zorionez, telefonoz geniharduenez, neskatilak ezingo zukeen ezer antzeman nigan sortu zuen behin-behineko estualdi hartaz... Hatik, hitz egiterako orduan zerakutsan ausardia kontutan hartuaz, neure zalantzak ere banituenez horretaz, erasora jotzea ebatzi nuen: “Zu ez zara jaiotzez Zedarrikoa, ezta? Zure hizkeragatik ermuarra edo zarela esango nuke nik!”, jaurtiki nion, zertxobait lotsarazi asmoz.

Helburu hori lortzetik urrun, “Oso ondo Unaxxx, onartu behar dut asko hurbildu zatzaizkidala, Mendararra bainauzu, ja, ja!”, erantzun zidan neskatoak, irri alai eta eranskorrez. Bere deiaren zergatia, jaiegun zoriontsuak igaro nitzala opatzeaz gain, inbertsio-zorroen sustapen berrietaz jakinarazteko aldizka deituko zidala agertzea omen zen, hots, Ainhoak egin ohi zuen bezala, egokiro baneritzon, noski. Ainhoak nitaz ezin hobeto hitz egin ziola ere agertu zidan, bide batez. Zeharo gorrotagarriak zitzazkidan “inbertsio-zorro” nahiz “sustapen” hitzak ongi baino hobeto aditu nizkion arren, ez nuen elkarriketari amaiera emateko adorerik izan, erdi liluraturik utzi baininduen oihan-erdian galdutako erreka hotsa gogorarazten zidan barre jostari harekin. ”Jakina, jakina! Informaturik egotea oso... interesgarria baiteritzot!”, adierazi ahal izan nion soilik, esaldiari taxuzko bukaera bat emateko zailtasunekin topatuaz zinez, hitzetik horztera ahomotela bihurtu banintz lez.

“Asko pozten nau hori entzuteak, Unaxxx!”, erantzun zidan orduan Izarok; ondoren, neronek eskainitako abagune hartaz baliatuz, egungo finantza-merkatuaren sofistikazioaz eta orokorrean inbertsio baten kude-

aketan parte hartzen zuten aldagaietaz mintzatzen hasi zitzaidan: Ibex 50 gora, Eurostoxx 50 behera, Dow Jones 30 eskuinera, Nasdaq 100 ezker-  
rera, ez nion tutik ere ulertzen egiaz. Arrisku txikiko ala handiko diru-  
zorrotan inbertitzeko erabakia bete-betean hartzeko, *Aholkularitza Zer-  
bitzu Berezi* bat abian jartzeko asmotan zebiltzala ozta-ozta hauteman ahal  
izan nion. Bezero hoberenentzat soilik. Eta ni haien artean omen nengoen,  
noski. Lo geratu nintzela pentsa ez zezan, tarteka “aja!” batzuk ahoska-  
tzen nituen, nire mugagabeko jakinguraren adierazgarri. Hamaikagarren  
“aja!”-ren ondoren, agian denbora gehiegi lapurtzen zebilkidala adierazi  
zidan Izarok, nik ziurrenez egiteko ugari izango nituela eta. Ustekabean  
harrapatu zidan halako adierazpenak, ordenagailua piztu ostean, posta elek-  
tronikoz heldutako mezuak gainbegiratzen nenbilenean. Halaber, Izarori  
baietz, lana franko nuela adierazi nion, sudurra luzatzearen arriskua neu-  
re gain hartuaz. Ez nendila kezkatu, ulertzen zuela eta, azaldu zidan xa-  
loki Izarok; halere, sukurtsaletik igarotzeko tarterik aurkituko banu, azal-  
pen zehatzagoak emango zizkidala ere gehitu zidan jarraian. Erregu eske  
edo, sukurtsalera hurbiltzea erabat zaila ikusten nuela aditzera eman nion  
neskatoari, Bilbora lanera goizeko zortzietarako heltzeko, Zedarritik zaz-  
piak eta laurdenetarako atera beharra izaten nuenez, sukurtsalaren irekiera-  
ordua baino ordu eta laurden lehenago, alegia. Alabaina, neskatilak bere-  
hala aurkitu zion korapilo hari askabidea: berari ez omen ziokeen ahale-



gin berezirik egitea suposatuko egunen batean sukurtsalera zertxobait lehenago iristeak nirekin egon ahal izan zezan. Era hartan esanda, maitaleen arteko zita batetaz mintzo zela zirudien -beti izan dut oso irudimen bizia, biziagia beharbada-. Ongi baletorkit, biharamunean goizeko zazpitan gera gintezkeela gaineratu zidan Izarok, hamar bat minutu aski izango zituzkeela azaldu beharreko guztiak azaltzeko. Proposamen hari ea zer neritzon galdeginaz amaitu zuen bere berbaldia Izarok.

Oldar zuzen hark ia hitzik gabe utzi ninduen, egiaz eta begiaz, neure adimenetik hasierako barre zoroko neskatilaren irudia erabat ezabatu eta lana gorputz eta arimaz egitera ohitua zegoen emakume arduratsu bate-nagatik ordezkatu beharrean aurkitu nintzelarik. “Ba zer esango dizut bada, nahiko lizuna iruditzen zaidala zure proposamena, baina tira, arrisku handiko kirolen zale amorratua naizenez, han izango nauzu”, erantzun nion, Izarok berak zerabilkien mintzaira umoretsuaz kutsaturik .

- Ja, ja, asko *gustatzen jata* zure umorea! Bihar arte orduan, Unaxxx! – ihardetsi zidan.

- Bihar arte, Izaro! – esanez agurtu nuen.

Gogoan dut oraino, ondorengo orduetan, Izaroren ahots ez-titsua-ren oihartzuna itsatsirik izan nuela nire entzumenean burrunba eginez, harrik eta eguneroko zereginiek guztiz iraungi zuten arte...

## - II -

Biharamunean, etxetik atera ostean, nire oinek herriko “Ortze-muga Zabala Kutxa”-ko sukurtsalera zuzendu ninduten, goizeko zazpiak izateko hamar minutu geratzen zirenean oraindik. Neure burua barregarri nekusan iluntasunaren menpe jarraitzen zuten karrika harriztatuetan zehar ibilian. Izaro, adostu genuen hitz-orduaz, oroitu ere ez zela egingo go-goetatuz nindoan. Sukurtsaleko erakusleihoan nabarmendu zitekeen argiak ordea, erraturik nenbilela aldarrikatzen zuen. Hurbildu eta txirrina jo nuenean, ate elektrikoa berehala ireki zen.

Gorpuzkeraren itxuragatik, halabeharrez Buda gizenkote baten estatuaren oroitzapenak zekarzkidan Ainhoa esertzen zen tokian, jainkosa greko baten estatuaren gomutapenak biztuarazi zizkidan neskatila bat zegoen. Adats luze distiratsu eta kiribildu batez hornitua. Nire sinestezinezko dedukzio-dohainei esker, Izaro zela ondorioztatu ahal izan nuen. Beragana zuzendu nintzen iman batez erakarritako torlojua izango banintzan, eskua luzatzeko asmoz. Halere, Izarok aurea hartu zidan, mahaiaren atzetik zutitu, bidera atera eta bere ezpain gorri mamitsuen zigilua nire mäsailetan jarriaz ezustean, “Egun on Unaxxx! Mila esker etortzeagatik!”, agurtzarekin bat. Hasiera-hasieratik halako konfiantza erakustea Mendaron ohitura izango zela gogoetatu nuen. Eskumako eskua osoki zabalduaz mahaiaren aurreko aulkian eser nendin keinua egin zidanean Izarok, bere azkazalak katuki batenak bezain luzeak zirela ohartu nintzen. Senak bere atzamarkadak neure bizkarrean irudikatzerara eraman ninduen. Berriro ere irudimena arrapaladan nenbilen. Jarlekua bihotzez eskertu nuen, Izarok zerion lurrinak –*Lancôme* etxeko *Trésor*, ziurrenez-, sorrarazi zidan zorabioa menderatze aldera. “*Neri asko gustatzen jataz* ordukoak diren gizonak!” gaineratu zuen, eliz dorreko ezki nagusiak zazpiak zirela iragaritzen zuen une berberean. Laudorioa atseginez hartu nuen. Charles Dickens, idazle britainiar entzutetsuaren aipu bat etorri zitzaidan burura bat-batean: “*Giza bihotzak hari anitzez osaturiko gailuak dira; gizonak ongi ezagutzen dituen hark badaki hari bakoitza noiz, non eta nola ukitu, musikari trebe eta iaio batek egingo zukeenaren antzera!*”; Izarok biolina, pianoa edo antzeko hari-instrumenturen bat jotzen jakingo zuenaren aierua ukan nuen orduan, une bakoitzean egokiena esateko abilezia berezia baitzerakutsan.

Nire pentsakizunetan murgilduta nenbilerarik, ia oharkabea, bilera haren sorburu izan zen *Aholkularitza Zerbitzu Bereziari* buruzko azalpenak ematen hasia zitzaidan jadanik Izaro. Bere ezpain mamitsuen mugimenduak, hots, tarteka marfilezko hortz distiragarriak agerian uzten zituen aho-higidurak eman zidan honen berri. Izaroren berbei behar adinako arreta eskaintzen hasi aurretik ordea, bere begi argiak mirestekoa beta hartu nuen oraindik, hauek tindaturiko lente eta kafe-koloreko armazoi zabaleko *Gucci* batzuen atzean ezkututzen zituen arren. Harribitxi haiek orlegiak edo urdinak behar zuten izan, nahitaez. Jarraian bai, entzumena zorrozten eta

jakingura aurpegia jartzen saiatu nintzen: Kutxaren helburua nire inbertsio-zorroei tratamendu integratu eta pertsonalizatua eman ahal izatea zela ziharduen une hartan, erakundea eta ni, bezero gisa, egitasmo beraren par-taide izan gintezela alegia; helburu hori erdietsi asmoz, Kutxak erabaki fis-kalak hartzerako orduan berme gisa baliagarriak gerta zitezkeen parame-tro objektiboak kontuan hartuz, kalitatezko arreta zerbitzu bat eskaini gura omen zidan. Ederra kalamatika zerabilena!

Nahigabean gaineratu zitzaidan ezitulldiari esker, Izarok bere hitz-jari-rikeria eten zuen une batez. Egokiera hari etekina atereaz, bere adats osoa bi eskuekin inguratu eta pilatzeari ekin zion Izarok; barka niezaiola, pre-saka etorri zenez lanera, dutxatu ostean ilea mototsean biltzea ahantzi zi-tzaiola eta. Eskumako eskumuturrean zeraman goma arrosaz gauzatu zuen ekintza hura. Xarabe onenak ere ez zukeen eraginkortasun handiagoare-kin nire ezitulldia uxatuko. Bizitza barkatzen nionaren zeinu horietako bat luzatzera mugatu nintzen kokotsa zimurtuaz, ustekabeko ikuspenaren xehetasunik ñimiñoena ere ez galtzeko ahaleginak areagotuz: gorputzari ongi doiturik zeraman larruzko txaleko beltza tenkaturik geratu zitzaion bular aldean Izarori, ikuskizunak iraun zuen tarte labur hartan, titiburuen kokapen zehatza zailtasunik gabe nabarmendu zitzaizkiokeelarik. Ohikoa zenez, nire irudimena abiadura bizian zen. Txalekoaren azpian, lepoaldeko botoiak aske zituen alkandora zuri bat zeraman. Egiaz, bero handia egi-ten zuen aretoan, ziurrenez gauean berogailua ibilian utziko zutela on-dorioztatu nuen. Neuk ere enpatiaz neure *Montgomery* astuna erantzi nuen, disimuluan Izaroren bular aldeko irekiera iradokigarriantz begirada az-ka batzuk zuzentzen nituen artean.

Kutxak garbi zuela, bezeroaren ondasuna egoki kudeatzeko, estrate-giak behin eta berriro berraztertzea ezinbestekoa zela adieraziz jarraitzen zuen bere mintzaldiarekin Izaro, geziak adinakoak izan zitezkeen nire begi-izpien ziztadetaz ohartu gabe, antza. Lehendik Kutxak eskaintzen zuen Aholkularitza Zerbitzu arruntari, non bezeroak Kutxako aditu batek lan-dutako txostenak postaz hiru hilabetero jasotzen zituen, beste urrats bat emanaz, harantzago joan eta *Aholkularitza Zerbitzu Berezi* bat eskaintze-ko egitasmoa landu nahian zebiltzala zehaztu zidan. Bertan, Kutxako adi-tuak, finantzen merkatuko parametro esanguratsuenen zehatz-mehatze-

ko azterketa baten ostean, bezeroari bere kapitala diru-zorro egokienetan inbertitzeko aholkuak berme osoz emango omen ziokeen, bezeroarekin aurrez aurre bi hilabetero bilduaz. Beraz, Kutxako aditua eta bezeroaren arteko *ahoz-ahoko* bilerak izango ziratekeen haiek, Izaro beraren hitzetan. Azalpen hauen erdian, betaurrekoak kendu eta begira-begira geratu zitzaidan Izaro, bitxigile batek bere aurpegian txertatutako urdin turkesa koloreko bi harribitxi izugarri haiekin. Eguzki kiskalgarriaren pean urtzen zihoan gurina bezala sentitzea ezin izan nuen saihestu.

Zerbitzu berriaren ordaina ordura arte eskaintzen zetozen zerbitzua-  
ren antzekoa izango omen zen, hots, bezeroaren irabazi guztien %5eko ingurukoa. Logikaz, aurrez iragarri zitekeen moduan, kopuru hori baino pixka bat handiagoa izango omen zen, baina hor nonbait ibiliko omen zen halere; %6koa izan zitekeela agian. Bestalde, gutxiengo iraupen bati atxikia, urtebetekoa edo, izango omen zen zerbitzu berriaren kontratua. Unerik galdu gabe, zenbateko zehatza nahiz iraupenaren xehetasun hauek ziurtatzeko, egitasmoaren kontratu-paperak behatu beharko zituela adierazi ostean, betaurrekoak berriro jantzi eta berauen bila hasi zen Izaro, mahai gainean zituen paper multzoen artean. Eginkizun hartan ziharduen bitartean, Kutxako aditua nor izango litzatekeen galdetzea otu zitzaidan. Izarok, bere zeregina lipar batez utziaz, nire kasurako aditua bera izango zenaren adierazpenak, buruko zainetako odola borborka jarrarazteko eragina izan zuen nigan. Hitzetik hortzera, sekulako interesa piztu zitzaidan *Aholkularitza Zerbitzu Berezi* hartan; alabaina, duintasuna mantentze aldera, mus jokalaria trebe baten zirkinik gabeko jitea antzeratuz, Izarori agian, zergatik ez, aldi baterako zerbitzuaren kontratazioa egiteko prest nengokeela azaltzera mugatu nintzen soilik.

Nire adierazpenak Izaroren aurpegian poztasun eite baten agerpena eragin zuen. Kontratu-paperak mahai gainean topatzen ez eta zutitu egin zen neskatoa. Berriro ere barkamenak eskatu ondoren, biratu eta bere gibelean zuen armairuko apalak arakatzeari ekin zion, goikoenetatik hasita. Jainkoari eskerrak luzatu nizkion neure barrenetik, Izaro begiz jateko eskaintzen zidan aukera ezin hobe hargatik. Gorpuzkera bikain baten jabe zela baieztatzen zuten *Lois* bakero urdinak zeramatzan neskatoak, gorpuzari ederto egokituak, azalean bertan tatuaturik balituen.







Gainaldeko apaletan paperak aurkitzen ez zituenez, behekoetara zuzendu zen Izaro, bere miaketan. Horretarako makurtu zenean, mototseko gomarekin jokoia egiten zuen hari arrosako tanga geratu zen nire ikusmenaren eremuan. Hipnotizaturik geratu nintzaion hiruki arrosari begira. Gutxi-gatik ez zidan egoera auhendagarri hartan harrapatu Izarok, bet-betan biratu zenean. Hamaikagarren aldiz, barka niezaiola eskatu zidan, ezin zuela zorioneko txostena idoro eta. Gehiegi urduritu ez zedin, eta lasaitze aldera, beste batean etortzea ere ez zitzaidala batere axola azaldu nion. Berak orduan, Zuzendariaren bulegora jarrai niezaiola mesedez erregutu zidan, irri txiki eta urduri batez, han erraz aurkituko genuela bila genbiltzana eta. Hitz haiek entzunik, berriro ere, nire irudimena zitzu bizian jarri zen abian. Zer esanik ez, neskatoak, “Opari bat ere eman behar dizut bestalde, hain bezero ona izateagatik!”, gaineratu zuenean, sukarra ere igo zitzaidan. Argi bazegoen ere, oparia, mahai-tresneria, ontziteria, kafe-jokoa edo antzeko zerbait izan zitekeela, nire irudimena maldan behera amiltzear zen. Zuzendariaren bulegoraino iritsi arteko iraganbide luzean zehar, nire begirada Izaroren atzealdetik urrun mantentzen saiatu nintzen arren, ez nuen nire helburua lortu, bakeroen *Lois* etiketak deskribatzen zuen mugimendu grabitatorioak erabat txorabildu ninduelarik.

### - III -

Halako batean, -ordu onean-, heldu ginen Zuzendariaren bulegoraino. Gelaren neurriak ikaragarriak ziren. Ezkerraldean kokatzen zen lanerako mahaiaren ia gain osoa ordenagailu erraldoi batek eta ondo lerrokatutako lauzpabost paper multzoek estaltzen zuten. Hauetako bat hasi zen miatzen Izaro behingoan. Mahaiaren gibelean ate tolesgarriko hiru armairu eskerga ikus zitezkeen. Zabalik zeuden bi armairuen apalak txosten eta liburuez gainezka ageri ziren. Bai mahai, bai armairuak *Montte* markakokak ziren. Izarok aurkitu zituen azkenik paper iheskor haiek, eta garaipen keinu batekin luzatu zizkidan, gain-begirada batekin kontratuaren gutxiengo iraupena urtebetekoa zela baieztatu eta gero. Oso argi baneukan guztia, urtebeterako kontratu-agiria osatzen zuten bost orrialdeak orduantxe ber-

tan sinatu nitzakeela gaineratu zidan, bere ohiko ahots sentsualarekin. Nik, nola ez, zalantza izpirik egin gabe, baietz erantzun nion, garbi neukanez gero aurrerantzean nire sosen kudeaketan *Aholkularitza Zerbitzu Bereziaren* prestakizuna izan nahi nuela, ordaina %5ekoa ala %6koa izan ez zitzaidalarik gehiegi axola. Izarok, Ipar nahiz Hego Poloak batera urtuko litzuzkeen irribarre eskuzabal batekin, Zuzendariaren mahaiko arkatz-ontzitik hartutako boligrafo bat eskaini zidan. Zirt zart, berehala burutu nuen orrialde bakoitzean nire izenpea ezartzeko tramite hura, letra txikia beti irakurtzea komenigarria ez ezik, beharrezkotzat jotzen duen aholkuari ostiko ederra emanaz.

Izenpetu berri nuen kontratuaren kopia tolestu eta kartazal batean gorderik luzatu zidan Izarok. Jarraian, une bat itxaron niezaiola esanez, itxirik zegoen armairurantz zuzendu zen. Betertzez begiraturaz, arasaren barnean kaxa gogor bat, jantzientzako esekitokiak eta zenbait kaxa itxiak bereiztu ahal izan nituen. Niretzako opariren baten bila zihoala suposatu nuen. Zegokidan erregaliaren bilaketa lasaiago burutu zezan, zuhurtasunez, Izarorengandik pixka bat urruntzea komenigarria izango zela ebatzi nuen. Gainera, gelaren eskuma aldean, larruzko sofa beltz baten gainean horman eskegirik zegoen koadro eskergak, nire arreta erabat bereganatzea lortua zuen bulegoan sartu ginen une beretik. Margoa, itxuraz soila baina, era berean, arras bitxia zen zinez: pikondo baten adarretik itxura oso dastagarriko piku bat zintzilikaturik ageri zen eta berari begira liztor bat airean hegoak astinduaz, toki berean luzaroan bailegoen, ez aurrera, ez atzera egin gabe, oreka mantenduaz. Pikuaren eta liztorraren arteko harreman ezkutu hark zirudien margolanaren gai nagusia, nahiz eta bigarren maila batean, urrutirago, bere bidea eginez, hegan zihoan euli bat ere ikus zitekeen, pikuekiko liztorrak zerakutsan jarreraz erabat aiherga.

Ez dakit zenbat denbora geratu nintzen, neure baitan bildua, margolan berezi xamar hura behatzen -pare bat minutu apika-, harik eta Izaroren ahotsak, “Koadro hori Giovanni Garzoni, XVIII. mendeko italiar pintoresa ospetsuak margotua da. Atseginekoa al zaizu, Unaxxx?”, galderarekin mundu honetara itzularazi ninduen arte. Nire begirada margolanetik kendu ezinik, “Bai, ez dakit, zerbait berezia transmititzen duela dirudi, nahiz eta berau zer izan daitekeen adierazteko gai ez naizen sentitzen, egia

esan!”, erantzun nion. “Transmititzen dizun hori, zerbait erakargarria eta, aldi berean, arriskutsua izan al daiteke?”, itaundu zidan berriro Izarok. Hitz haiek zirrara berezi bat eragin zidaten gorputz osoan, zinki, sentitzen nuenarekin bat zetozenez. Eratzuna hatzari bezala. Egiatzki, margoan bazirudien liztorra pikurantz hurbiltzeko irrikan zebilela, baina zerbaitek eragozten ziola ekintza hori burutzea, zerk ordea?... Erantzuna Izaroren ahotik jasotzera nindoala aldarrikatzen zidan barruak bortizki...

Jakin-minak bultzaturik, Izarorengana biratu nintzenean poliki-poliki, zerbaiten kezketan bainengoen, harri eta zur geratu nintzen! Amesgaiztoren baten barnean harrapataturik, atera ezinik ote nenbilen, bada? Nire begien aurrean nekusana sinestezinezkoa zen!... Izaro hantxe neukan neurri begira mundura etorri zen moduan, guztiz biluzik! Bere adats kiribildua aske utzirik eta bere titi mardul, eder eta borobilak erakusgai zituelarik, bat-batean benetako jainkosa grekoa bilakatu bailitzan... Xehetasun bakar batek adierazten zidan ostera, greziarren garaiko amets baten barnean murgildurik ez nenbilela: ia ikusezinezkoa zen hari arrosako tanga ñimiñoak, hain zuzen ere! Ziurtasun hau izanagatik, une hartan txintik ere esateko gai ez nintzen izan...

“Ba al dakizu, liztorra pikua barnera sartu ohi dela, naturaren deiari erantzunez, pikua behealdean duen zulotik, bere hegoetan daraman lorehautsa bertan uzteko?”, galdetu zidan Izarok, nigana pixkanaka hurbiltzen hasiaz. Nik mutu eta mugiezirik jarraitzen nuen, ez baizen hura inondik inora ere, nik itxaroten nuen kafe-joko oparia, ez horixe, alajaina!...

“Ba al dakizu, liztorrak behin pikua barnera sartuz gero, irteterik ez duela izaten hegoak apurtzen zaizkiolako eta, ondorioz, bertan igaro behar izaten dituela bere bizitzako azken uneak?... Eta bestalde, pikua liztorrak ekarritako lore-hautsari esker heldu ohi dela?... Bada, hori guztia da margolan horrek adierazten duena!”, jarraitzen zuen Izarok, nigandik metro batera geratuaz. Bat-batean ulertu nuen koadroak transmititzen zuen tragedia bere osotasunean, ni margolan hartako liztorra bezala sentitzen bainintzen, aurrean nuen fruitu dastagarriari begira. Zain guztiak puzturik, lehertu beharrean senti nitzakeen...

Nire mututasunaren zergatia ulertuko ez balu bezala, eta ziurrenez nigan erreakzioaren bat pizteko asmoz, Izarok, “Kontratu bat sinatu dugu,

Unaxxx!” adierazi zidan haragikeriaz betetako ahots-doinuaz. Urduritasunez, zer egiten nuen argi izan gabe, instintiboki, eskuan neraman kartzaletik kontratu-agiriaren kopia atera nuen, bertan ustekabeko zerbaitekin aurkituko nintzenaren susmo funtsatuarekin. “Bosgarren orrian, Unaxxx...”, xuxurlatu zidan Izarok, lehengo doinu berean. Hala zen: bosgarren orrian zetozen *Aholkularitza Zerbitzu Berezian* sartzen ziren aukera ororen xehetasunak, bere ordainsaria eta guzti. Lehen hiruak irakurtzearekin aski izan nuen *zerbitzuen* nondik norakoaz ideia bat egiteko: *Misiolaria*, *Frantziarra* eta *Greziarra*, zerbitzu bakoitza hiru digitutako zenbakiz lagundurik!... Ederra ziria sartu zidana jainkosa grekoak! Eta nik irudimen bizia nuelakoan, neskatorenaren aldean nire irudimena barraskilo baten maskor barruan zihoan bidaiari patxadatsua besterik ez zen eta!... Zerrenda esanguratsu haren oinpean, gutxiengo tarifa-kuota bat ere bazetorren: bi mila euro, bi hilabetero... Hots, kontuak atereaz, urtebetean hamabi mila euro ebatsi ziezadan baimena luzatu ez nion, bada?... Zelako astakirtena izan nintzen! Nireak ez zuen barkamenik!... Une batez kontratu hura apurtu nezakeela burutik pasatu zitzaidan arren, berehala oroitu nintzen arestian ikusitako armairu barruko kaxa gogorraz, argi zegoen bertan egongo zela neuk sinaturiko kontratu originala mene onean. Kaikua izan behar zen gero! Bero-bero nengoen arren, hoztasunez gogoetatzen saiatu nintzen: nire ergeltasun nabarmena alde batera utziaz, ukazinezkoa zen Izarok, edonor atzipetzeko lain zen antzezlan bikaina burutu zuela hasiera-hasieratik, urratsez urrats...

Beharbada une hartan arduratsuena handik alde egitea eta ondoren neskatok hari epaitegian salaketa bat jartzea izango zitekeen; alabaina, kontratu bat zegoen tartean, neronek sinatua inongo derrigortzerik gabe, neure nahimen hutsez!... Nolaz zuritu nezakeen neure burua? Areago oraindik: burua garbi uzterik izango ote nukeen inoiz Zedarrri bezalako herrixka batean, non zurrumurruak txinparta ttipienarekin piztu ostean, iraungitasun-datarik ezagutzen ez zuten?

Nire sendiko-buru ohoragarriaren izen ona lohitzuz, bolbora-lorratza bezain azkar hedatuko ziren txutxu-mutxuen beldur batipat, baina baita ere, ez dut ukatuko, aurrean nekusan jainkosa grekoaren edertasunak nire nahimena erabat uzkurtua zuelako, instintuak agintzen zidanari men egi-

tea ebatzi nuen. Liztorraren bideari jarraitzea, alegia. Autu-mautuak eta hizki-mizkiak zabaldu eta nire emaztearenganaino heltzen baziren noiz-bait, beren funtsa izan zezatela, zer arranopola! Sinaturiko kontratuari etekina atera beharko niokeela iruzurrezko arrazoibidea erabili nuen, erabaki hura logikaz eta zuhurtziaz mozorrotzeko.

Horregatik, erantzun baten zain neukan neskatoari begietara zuzenki behatuz, “Arrazoi duzu Izaro, kontratu bat dugu, eta kontratuak zertarako dira, betetzeko ez badira?”, adierazi nion azkenik. Ziur nago nire erantzunak ez zuela ezustean harrapatu, bazekiela aurrez alegia, nik eulitik baino liztorretik gehiago nuela. Horrexegatik hautatuko zidan ongi jorratu-rik segada hartan eror nendin. Gardentasunez ikus nezakeen, Ainhoak nitaz hitz egin zioenean, psikologikoki nolakoa nintzen hautemateko gai izan zela. Zera, “Ortze mugua Zabala Kutxa”-ko aurrezki kontu ezberdinetan batzen nuen dirutzak bere zerikusia izango zuenaz ere, ez zegoen zalantza handiegirik. Barren-barrenetik, egoera hartan ere, neskato haren adimena mirestea ezin nuen ekidin egiaz: apika, piano edo biolina jolea ez zen izango, halaber, erruz erakutsi zidan harpa jotzaile bezala ez zuela lehiakiderik!

Nire hitzak entzun orduko horraitio, Izarok, bere irribarrerik xarmangarriena erakutsiaz, niganaino hurbildu eta merkatuko parametro esanguratsuenak modu eraginkorrean nolaz neurtu zitezkeen erakutsi zidan.



Mihiaren bidez. Emeki-emeki. Neurketaren emaitzek, arrisku gutxieneko diru-zorroan inbertitzea aholkatzen omen zutenez, lehen aldi hartarako, nire kapital guztia bertara isurarazi zidan. Isurketa ongi baino hobeto zuzendu nuen, zipriztin bat bera ere ez zelarik Izaroren ahotik kanpora jauzi!... Ez genuen izan gehiagorako astirik, han amaitu behar izan genuen gure batzarra, aurki bertaratuko zirenez sukurtsaleko Zuzendaria nahiz gaintzeko langileak.

Kontratuaren arabera, zita hari beste batek jarraitu zion handik bi hilabetetara. Eta berri hari, hurrengoak... Horrela urtebete egin arte! Izarorenganako sexu-egarria eta itsumena egunez egun, orduoro, handitzen joan zitzaidan urte oso bat, alegia!... Epe honen buruan, -lotsa ematen dit aitortzeak-, neronek eskatu nion jainkosari kontratuaren luzapen bat beste urtebetez. Hamaika erreguren ostean, Izarok azkenean amore eman zezala erdietsi nuen, hori bai, zerbitzu ezberdinen ordainsarien %10eko igotera zehazten zuen agiri berri bat sinatu eta gero!... Bai, badakit: jainkosaren nahimenaren gatibu gizajoa bilakatu naiz, hots, pikuaren barnean sartu ostean, aterabiderik aurkitu ezin dezakeen liztorrean...



*June Zenarruzabeitia Velez*

Irabazlea 11-12 urteko sailean  
Landako eskola





julene azpeitia lehiaketa 2008 urtea



Itsasoa

Itsasoa dabil,  
gora eta behera  
nora joango da,  
bere ur guztia?

Itsasoko uhinak  
dabiltza marmarra  
egunero bezala,  
hara eta hona.

Itsasoak,  
non ote dauzka  
sirenatxoak?  
agian ezkutatuta!

Gaur itsasoa,  
haserre dago,  
zer gertatu  
ote zaio?





*Ane Rios*

Irabazlea 17-18 urteko sailean  
Frai Juan de Zumarraga Institutua



julene azpeitia lehiaketa 2008 urtea



Isiltasuna

Gauero parkean ikusten zaitut,  
iturriaren ondoan urari begira,  
hasieran ezin nuen ulertu.  
Orduak pasa eta,  
zu han bakarrik,  
jesarrita.  
Batzutan eguzkia agertu arte  
Ez zara banku horretatik mugitzen.

Ni berriz,  
bost pausotara nauzu,  
lela bat bezala  
zuri begira.

Horrela denbora luzez egon ondoren  
gaur trebe sentitu naiz eta  
zure ondoan jesarri naiz.

Ez nauzu begiratu.  
Bi ordu daramat zuri begira.  
Zu oraindik ez zara mugitu,  
hitz egin nahi dizut  
baina ez naiz ausartzen.  
Ez dakit zer esan,  
eta ez dut isiltasun atsegin hau  
apurtu nahi,  
isilik geratu naiz.

Batbatean bankutik altxatu eta  
pixkanakapixkanaka  
nire albotik aldendu egin zara.



Isilik geratu naiz,  
zuri begira.

Hilabete bat pasatu da  
zure ondoan jesarri nintzenetik,  
egun guzti hauetan  
zure ondoan jarri naiz gauero,  
zu iturrirantz begira eta  
ni zuri begira,  
itxaron eta itxaron  
ea zure ahotik hitzen bat  
ateratzen den ala ez.

Oso ondo sentitzen naiz gauetan  
zuri begiratzeak lasaitzen nau,  
dena ahazten dut.

Pentsatzen dudan guztia  
zuri kontatzea nahi nuke.


Gaur gauero bezala  
parkera joan eta  
zure ondoan jesarri naiz.

Gaur lehenengo aldiz konturatu naiz  
ia bi hilabete daramadala  
gauero zure ondoan jesaritzen eta,  
ez dakidala nola deitzen zaren,  
nongoa zaren,  
ez eta  
nolakoa den zure aurpegia.

Beti albo batetik ikusten zaitudalako,  
arropa iluna  
ile motz eta beltza da  
ikus dezakedana.

Zenbat denbora egongo gara horrela?  
Egia esanda ez dit axola,  
bizitza osoa egon naiteke  
gauero zuri begira  
nor zaren jakin gabe,  
isiltasuna entzuten,  
isiltasuna gozaten.





*Jon Ander Urkiaga Egidazu*

Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean

julene azpeitia lehiaketa 2008 urtea



Eta gero zer?

Kilometro luzeko autopistatik doazen autoak baliran  
Joaten dira ur tantak lurrunduriko leihoetatik behera  
Bidegurutze bakoitza patuaren esku utzi  
Eta non bukatuko duten ez dakitela.

Eta gero zer?

Leihoko markoaren kontra talka,  
Tanta bakoitza bestearen gainean pilatuz,  
Larre zabaletako artaldeak negua igarotzera  
Baserrira jaitsitakoan bezala,  
Denak pilaturik, denak bat,  
Batasunak indarra emango dien itxaropenean.

Eta leiho horretatik harago begiratzean  
Ez dakizu begietan malkoak dituzun,  
Ez dakizu leihoaren bestaldekoa lanbroa den,  
Edo beste barik, miopea zaren.  
Baina lehen aukeraren alde agertu zara.  
Negar anpulek itotzen dituzte zure begi niniak,  
Beraz, lanbroa artifiziala da  
Zure bizitzaren antzera:  
Artifiziala.

Eta artifizialak ziren ordu erdi lehenagoko zure hitzak  
“Barkatzen zaitut”  
Eta artifizialak ziren ordu erdi lehenagoko bere hitzak  
“Sentitzen dut, damu naiz”.



Baina malkoak ez ziren artifizialak, ez.

Ez eta faltsuak.

Faltsuak ez diren bezala, kilometro luzeko autopistatik doazen autoak baliran, Lurrunduriko leihoetatik behera joaten diren ur tantak.

Eta momentu horretan, asteak zure patrikan igaro dituen *kleenex* paketea hartu,

Mukizapi bat atera eta leioa sikatzeari ekin diozu.

Ikusi nahi dituzu asfalto gaineko marra zuriak zure atzean gelditzen,

Atzean utzi nahi dituzu semaforo gorriak, Stop seinaleak, izugarritzko auto-ilara sortzen duten 70 urteko agureak...

Eta gero zer?

Betikoa. Ohe huts bat, mezurik gabeko erantzungailua, inork berotu ez dizun kafesne beroa... ez eta oinetakoak miazkatuko lizkizukeen txakur alu bat.

Amore eman duzu azkenean.

Ohera erori zara (zure lanbro partikular eta guzti). Zerraldo.

Eta kasete zaharra martxan jarri duzu beste behin ere.

Play.

*Every day things are getting worse... sasoi latzak...lalala, oh oh...*

## Diraute

Izarrak erortzen ziren gau ilunetan,  
Gosea merke eta ugari saltzen zen egunetan,  
Bertan iraun zuten.

Altzairuzko txorien kantek  
Eta ikararen sirenek *a cappella* abestean,  
Bertan iraun zuten.

Basoak bizibide izatetik  
Ihesbide izatera igaro zirenean,  
Bertan iraun zuten.

Atzerria aukera izatetik aberri izatera igaro zenean,  
Eta sorlekua sekula baino erbestego,  
Bertan iraun zuten.

Justizi nahiak kolore desberdinei garaitzean,  
Eta gorrotoaren zertzeladek paisaiak margotzean,  
Bertan iraun zuten.







*Irantzu Izagirre Bravo*

Irabazlea 11-12 urteko sailean  
Kurutziaga Ikastola



julene azpeitia lehiaketa 2008 urtea



Euskara

Kaixo lagunak bertsoa entzun  
Ta eukingo dozu gogo.  
Zetako galdetu dozu ta,  
euskaraz mintzatzekoa.  
Hizkuntza ederra gure euskera,  
baita gure altxortxo.  
Euskal herria da gure altxorra,  
baita ere bertakoa.

Gure euskera galtzen ari da,  
hitz egiten ez delako.  
Euskal Herria izan nahi bada,  
euskaraz hitz egin beharko.  
Hizkuntza zaharra gure euskara,  
baditu ia mende asko.  
Niretzako da hizkuntza onena  
bihotzekin mintzatzeko.

Gure hizkuntza ere behar du,  
bere lekua orrietan.  
Ez da nahikoa edukitzea,  
jendearen ahoetan.  
Idatzi ere egin behar da,  
eskutitz ta liburuetan.  
Arkatza hartu ta hasi idazten,  
koadernoko laukitxoetan.







Rodrigo Oñate Feliz

Irabazlea 13-14 urteko sailean  
San Antonio-Santa Rita ikastetxea



julene azpeitia lehiaketa 2008 urtea



Futbola



Nik gustuko dudala  
futbola benetan  
kirol hau jokatzeko da  
hainbat txapelketan  
hogeita bik jokatzeko  
dute zelaietan  
hankekin sartu behar  
gola porterietan.

Garbi ondo ta zintzo  
jokatu behar dela  
pilotari ostikadak  
eman dizkietela  
sarrera txar bat dela  
jokaldi ustela  
txartela aterata  
jakingo du horrela.

Eraikitzen daudela  
zelaiak berriak  
hobeto jokatzeko  
berdegune handiak  
zelai horien jabe  
talde nagusiak  
eta talde horiek  
lortzeko saria.

Nire talde onena  
dela bai Athletic  
inork ez dit esan behar  
nik neu, ja, badakit  
hamargarren postuan  
dago horregatik  
ez da jaitsi inoiz ere  
lehenengo mailatik.





*Garazi Sarrionandia del Hierro*

Irabazlea 15-16 urteko sailean  
Kurutziaga Ikastola



*julene azpeitia lehiaketa 2008 urtea*



*Aldaketak*

Aitona emango zenizkidake  
zuk gaztaroko berriak?  
Nolakoak ziren garai hartako  
hiri handi ta herriak.  
Etxe handiak bazeuden edo  
denak ziren baserriak,  
erlijioa ezagutzeko  
nik ez dauzkat iturriak.  
Orduantxe be orain bezala  
ba al zenituzten zerriak?

Ene biloba esango dizut  
egia guztia bihotzez,  
honek luzeegi joko dueta  
jar zaitez hemen mesedez.  
Hiri handietan ez nintzen egon  
hiru alditan baino ez,  
baina gauza bat esango dizut  
hitz gutxi batzuk emanaz:  
Kutsadura ez zen hain handia  
trafikoan eraginez.

Lehenago esan dudan bezala  
hirietan ez nintzen izan  
bertako etxe eta denari buruz  
ezin dizut berri eman.  
Bizitza osoan ibili nintzen  
lanean baserrietan,  
ederrak ziren, landa berdeaz,  
ta gauza bat nahi dut esan:  
Haien gainetik pasatuko zen  
tren beldurgarririk ez zan.



Erljioa nolakoa zen  
hori galdera edarra,  
mundu guztian dagoen bezala  
ez ona eta ez txarra.  
Sinestarazten ziguten denoi  
Jainkoak zuen indarra,  
hau gutxi balitz aipatu nahi dot  
ez dela gauza bakarra  
Goraipatua izan behar zen  
bera bailitzan izarra.

Honen ondoren ez daigun ahaztu  
guk zerrien asuntoa,  
berdin berdina izan da beti  
hemengo edo horkoa.  
Txerriak txerri jarraituko du  
atzoko edo gaurkoa.  
Biloba maite, egizu kasu,  
ez ahaztu esandakoa:  
Txerri denetan onena beti  
da txorizotarakoa



*Eñaut Uruburu Martinez*

Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean



julene azpeitia lehiaketa 2008 urtea



Baina ez kontatu inori

1

Gaur iluntzean egin behar dot  
inoz egin ez dodana  
neure buruak eskatu deusta  
nigaz egiteko plana  
botila-ardo bat eroango dot  
amak erosi eustana  
eta gitarra zaharra, nahiz hautsak  
jango eutsan iragana  
ez dagidala inork galdetu  
zer dan pasetan jatana  
zure kulpa be izan leiteke  
zoratu egin izana

Eta hondartzan jesarriko naz  
hare tontortxo batean  
sentituko dot bat zelan bizi  
leiteken bere bakean  
ardoa erruz iruntziz eta  
akorde soilen katean  
nostalgiko lez mozorrotuaz  
gura barik edatean  
oroituko naz ginen haretaz  
mendian edo parkean  
eta bizitzen ikasiko dot  
zita amaitu artean

Itsasoari beha amaren  
mahats urak itoko nau  
bizitzak arau sinpleok deuko  
ta arauak beti arau.  
Gero hordiak ilunabarra  
bilakatu artean gau  
Metafisikan murgilduko naz  
ezintasunak badirau  
pentsatuko dot zergatik, zelan,  
zertarako hori ta hau?  
Eta isilik geratuko naz  
inork erantzun nahi badau

“Zenbat koitadu hil ete dodaz  
kapritxo hutsetarako?  
Zenbat izan ta gehiago gura  
berez izan arren nahiko  
Zenbat guzurtxo gorde nebazan  
berba on bakotxerako?  
Zenbat alditan ezkutatu naz  
ez sentitzearren txarto?  
Zenbat denbora zakarrontzira  
ez ete neban botako?  
Zenbat ta zenbat... guzti guztia  
zu lakoa nazelako”



“Bat alperra da produzitzera  
jagi ez bada goizean,  
bat kaparra da bizi ezkerro  
Anbotopeko leizean  
ikus leiteke dirua behar  
Fisiologiko antzean... “  
Eta neurean jarraituko dot  
ekia gorri jartzean  
“... ahopeka lez elkartasuna  
aitatzen dabe etxean  
baina ez dabe ezer emoten  
bueltarik jaso ezean”

“Norantza goaz ta nora doa  
munduaren politika?  
Nork eroan nau erruki barik  
egiteraino harrika?  
Nork agindu dau amaitu dala  
hasi barri dodan zita?”  
Beroaldiak barre txiki bat  
marrastuko deust, apika  
eta eguna nehoizko argi  
bakanen menpe itzita  
malko bakotxa sikatuko dot  
eskua herraz itxita

Eta ia bat izan artean  
iluna eta itzala  
ene galderez bete behar dot  
botila, hustu ahala  
gerora urak eroateko  
pelikuletan bezala  
esperantzaren putzu bihurtuz  
itsasoaren zabala  
eta zeozer dakien horrek  
bueltan bidal dagiala  
halan ez bada ulertuko dot  
erantzuna dakidala





Bihar haretzan itzartuko naz  
eguzki betean errez  
desertua ta nire idorra  
bardinduko bazan legez  
gitarra zaharra nigandik gertu,  
gero egiteko oles  
botila-ardo bat erostekotan  
nire min eta odolez  
barriz mozkortu ta kantatzeko  
botilari itxaronez  
beste guzur bat gurago baitot  
nire egiaren ordez



